



**OSALAN**

Laneko Segurtasun eta  
Osasunerako Euskal Erakundea  
Instituto Vasco de Seguridad y  
Salud Laborales



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

# Memoria

LANEKO ARRISKUEN  
PREBENTZIOA

%25

SENTSIBILIZAZIOA

%35



OSASUNA

%30

KONTZIENTZIAZIOA

%20

# OSALAN



# AURKIBIDEA

1. HITZAURREA .....	06
2. 2014RAKO KUDEAKETA PLANAREN ESPARRUAN GAUZATUTAKO EKINTZAK .....	08
2.1. KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA .....	09
2.2. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARAKO JARDUEREN KALITATEA .....	15
2.3. ERAKUNDEEN KONPROMISOA ETA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA .....	17
2.4. LAP-AREN ALORREKO KONTROLA ETA AHOLKULARITZA, BATEZ ERE ETE-EI.....	22
2.5. LAN-BALDINTZAK ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA KUDEAKETAN TXERTATZEA .....	24
2.6. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA LEHEN SEKTOREAN .....	29
2.7. JAKINTZAREN SORRERA HEZIKETAREN ETA IKERKETAREN BITARTEZ .....	32
2.8. OSASUNAREN ZAINZA .....	38
2.9. ARRISKU ERGONOMIKOEN ETA PSIKOSOZIALEN PREBENTZIOA .....	42
2.10. INFORMAZIO-SISTEMAK .....	45
2.11. PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA .....	50
2.12. OSALANEN ERAKUNDE-JARDUERA.....	54
2.13. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEAN INPLIKATUTAKO ERAGILEEN PARTE-HARTZEA ETA HAIEN ARTEKO LANKIDETZA.....	59
3. BALIABIDEAK .....	61
3.1. BALIABIDE EKONOMIKOAK .....	62
3.2. GIZA-BALIABIDEAK .....	63
4. 2014RAKO KUDEAKETA PLANAREN GARAPENARI BURUZKO BALIOESPENA .....	64
1. ERANSKINA: EAE-KO ISTRIPUEI BURUZKO DATUAK .....	66
2. ERANSKINA: OSALANEK ANTOLATU DITUEN EKITALDIETAN 2014 URTEAN .....	68
3. ERANSKINA: BESTE ERAKUNDE BATZUEK ANTOLATUTAKO OSALAN-ek PARTE HARTU DUEN EKITALDIAK.....	71



Izaskun Urien Azpitarte



Urtero bezala, aurten ere 2014. urtean egin dugun lanaren emaitza partekatu nahi dugu Osalanen, Eusko Jaurlaritzak bere egin duen eta haren bereizgarri bihurtu den gardentasun-konpromisoa ere betez



## AURKEZPENA

Urtearen hasieran Kudeaketa Plan handi bat garatzeko konpromisoa hartu genuen eta konpromiso hori betetzearren, lan-arriskuen prebentzioaren arlo guztietan jardun dugu, itsu-itsu jarraitu nahi izan ditugun balioen ikuspegitik begiratuta. Hori horrela izanik, gure Autonomia Erkidegoan laneko segurtasun eta osasunean interesak dituzten agente guztien inplikazioa eta lankidetzaz lortu nahi izan dugu, eta herritarren parte-hartzeari ateak are gehiago zabaldu dizkiogu, gure webgunearen bitartez.

Gure Lurraldeko langileen segurtasuna eta osasuna hobetzeko helburuei jarraiki lan egin dugu, eta horretarako, askotariko ekimenak garatu ditugu betiere baliabide publikoak eraginkortasunez, efizientziaz eta erantzukizunez erabilia.

Eta hori guztia Erakunde hau osatzen duten profesionalen lanari esker lortu dugu; gaitasun handiko profesionalak lan handia egin dute eta eskerrak eman nahi dizkiet egindako guztiaengatik.

2014. urtean une garrantzitsu bat bizi izan dugu Euskal Autonomia Erkidegoaren lan-arriskuen prebentzioaren arloan, izan ere, 2011-2014ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategiak markatutako aldia amaitu baita. Beste ziklo bat hasi da, eta prebentzioaren arloko esparru estrategikoa diseinatu behar da, ekonomiaren, gizartearen eta lanaren arloetako egoerarekin bat.

Osalanen jarduna oso garrantzitsua izan da eta izango da, oraindik ere, zubi-lanak egiteko; hain zuzen ere, bukatzen ari den baina lortutako emaitzak esparru berria diseinatzeko abiapuntu izango dituen Estrategia baten eta hastear dagoen Estrategia berri honen arteko zubi-lanak. Estrategia berria betearaztea eta hedatzea izango da gure Erakundearen datozen urteotako zeregina.

Ildo horri jarraiki egin dugu lan 2014. urtean, 2011-2014 aldiko Estrategian bildutako jarduerak esparru berriaren diseinuarekin uztartuta; prozesu horretan Osalan aitzindari izan da eta laneko osasunaren eta segurtasunaren esparruan jarduten duten agente guztien laguntza izan dugu.

Gure Erakundeak lan handia egin duela uste dugu, eta bere garaian Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak geuregan jarritako konfiantzak merezi izan du. Esan gabe doa ahal dugun guztia egin dugula, eta orain aurkezten ari garen Memoria hau horren adierazgarri da.

Bukatu aurretik, berriro ere eskerrak eman nahi dizkizuet gure proiektuak gauzatzeko lana ez ezik, ilusioa eta energia ere eskaini dizkiguzuen guztioi.

**Izaskun Urien Azpitarte**  
Osalanen zuzendari nagusia

# 01

## HITZAURREA

**Osalanen** jarduera bat dator erakundea sortzeko Legean eta<sup>1</sup> bere Egitura eta Funtzionamendua ezartzen duen Erregelamenduan<sup>2</sup> esleitutako funtzioekin, hau da, Autonomia Erkidegoaren botere publikoek ezartzen dituzten laneko osasunaren eta segurtasunaren inguruko politikak kudeatzea, lan-inguruneari datxezkion arriskuak hasiera-hasieratik ezabatzeko edo murrizteko joera dutenak.

Funtzio horiek guztiak **Erakundearen urteko Kudeaketa Planaren** arabera garatzen ditugu, plan horretan zehazten baitira jardun-eremu bakoitzean gauzatu beharreko ekintzak, betiere Eusko Jaurlaritzak laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan finkatutako Estrategiaren ildoari jarraiki lehentasunezko lan-ildoei eta helburu estrategikoei dagokienez.

**Osalanen 2014rako Kudeaketa Planaren** bitartez 2011-2014ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategia garatzen jarraitu eta amaitu dugu, eta aldi berean, EAEko lan-arriskuen prebentzioaren esparruan etorkizunean garatu beharreko esparru estrategiko berriarekin lotura egin dugu. Izan ere, Osalanen 2014. urteko jarduera garrantzitsuenetako bat 2015-2020 aldirako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia berria diseinatzea izan da, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak agindutakoa betez.

<sup>1</sup>17/1993 Legea, abenduaren 21ekoa, OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzekoa.

<sup>2</sup> 191/2002 Dekretua, uztailaren 30koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Egitura eta Jarduerarako Araudia onartzeko dena.

**Osalanen 2014ko Kudeaketa Plana** bat etorri da 2011-2014 aldiko Estrategiaren helburu eta jardun-ildoekin eta lehenatasunezko zatik jo diren arlo eta jardueren bereziki erreparatu diegu, aurreko urteetako emaitzak kontuan izanik eta Osalanek bere informazio-iturriei esker eta landa-lanari esker ezagutzen duen laneko segurtasun eta osasunaren egoera zein den aintzat hartuta.

Horrela, bada, laneko 13 eremu hauetan jardun dugu:

## OSALANEN 2014RAKO KUDEAKETA PLANAREN JARDUERA EREMUAK

- J.1.-** Kontzientziaketa eta sentsibilizaketa.
- J.2.-** Laneko arriskuen prebentzioaren arloko jarduketaren kalitatea.
- J.3.-** Erakundearen konpromisoa eta administrazioaren arteko koordinaketa.
- J.4.-** Laneko arriskuen prebentzioaren arloko kontrola eta aholkularitza, enpresa txiki eta ertainen bereziki.
- J.5.-** Lan-baldintzak eta laneko arriskuen prebentzioa kudeaketan txertaketa.
- J.6.-** Laneko arriskuen prebentzioa lehen sektorean.
- J.7.-** Jakintzaaren sorrera prestakuntza eta ikerketaren bitartez.
- J.8.-** Osasunaren zaintza.
- J.9.-** Arrisku ergonomikoen eta psikosozialen prebentzioa.
- J.10.-** Informazio-sistemak.
- J.11.-** Pertsonen garapen pertsonala eta profesionala.
- J.12.-** Jarduera instituzionala.
- A.13.-** Laneko arriskuen prebentzioan inplikaturako eragileen arteko lankideta.

Ekitaldi honetan, laneko arriskuen prebentzioaren kultura indartzera bideratutako kontzientziaketa eta sentsibilizaketa ekintzen emaitza diegu garrantzia. Prebentzio-jardueren kalitatea sustatzeko ere lehenatasuna izan du eta, horretarako, kalitatea hobetzeko tresnak diseinatu ditugu, eta aplikatzeko garaian aholkularitza eta laguntza teknikoa izan ditugu. Ildo beretik, arriskuak ezagutzeko eta tratatzeko azterketak eta ikerketa-proiektuak egin ditugu.

Lehen sektorea eta arrisku psikosozialak arreta-esparru espezifikoa izan dira berriro ere, eta alde batetik genero-ikuspegiak begiratutako lan-arriskuen prebentzioari, **eta bestetik, prebentzio-diziplina den Ergonomia garatzeari bultzada emaitza diegu. Ergonomiaren alorrean, datuen urteetan proiektuak gauzatzeko oinarriak finkatu ditugu.** Hori guztia lan-baldintzak hobetzeari utzi gabe, eta lan-ekipoen eta agente kimiko edo biologikoen ondoriozko arriskuen eraginpeko egoerak murriztuta.

Gainera, Osalanek bete egin ditu berari dagozkion funtzioak, hala nola lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak ikertzea; laneko, osasuneko eta industria-segurtasuneko agintaritzari laguntza teknikoa ematea, bai eta instantzia judizialei eta laneko osasunean eskumenak dituzten beste erakunde eta organo batzuei ere; eta EAEn aritzen diren prebentzio-zerbitzuak kontrolatzea, osasuneko agintaritzaren aldetik.

Lan-arlo bakoitzeko jardueraren emaitzak zehatz-mehatz azalduko ditugu hurrengo kapituluetan, eta etorkizunean landu nahi ditugun jardun-ildoak ere aurkeztuko ditugu.

# 2014rako KUDEAKETA PLANAREN ESPARRUAN GAUZATUTAKO EKINTZAK

# 02

2014ko ekintzak onartutako diseinuari jarraiki burutu ditugu, eta Planaren garapenaren berri izateko aldizka egiten diren azterketetan hautemandako desbideratzeak edo egoera-aldaketak aintzat hartuta, egin beharreko egokitzapenak egin ditugu.

Oro har, Osalane esku zeuden ekimen gehienen helburuak bete ditugula esan dezakegu, aurreikuspenen arabera garatu baitira. Beste zenbait ekintza garatzea hirugarrenen laguntzaren edo inplikazioaren esku zegoenez, balantzea ez da hain positiboa, baina aurrerapen handia egin da.

Bestalde, ezusteko egoerak ere izan dira; gizartean alarma eragiten duten egoera horien aurrean, Osalane jardun egin behar du laneko segurtasunaren eta osasunaren krisialdi larria sortzen bada, hala nola, Bizkaian izan zen Q sukarraren kasuan. Logikari jarraiki, Erakundearen ahalegina eta baliabideak arazo horiei aurre egitera bideratu behar dira, beste proiektu batzuen kaltetan, zeren garrantzitsuak diren arren, ez baitira larrialdiak.



# 2.1

## KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Laneko arriskuen prebentzioaren kultura hedatzea izan da eta izango da, oraindik ere, Osalanen lehentasunetako bat. Arlo honetan, Erakundeak hainbat jardun-ildo ditu, kasuan kasu helarazi nahi den mezuaren eta xede-hartzaileen arabera.

Esate baterako, Internet bidezko dibulgazio-jarduera ingurune horretan dabiltzanei zuzenduta dago, eta horrekin batera, irakaskuntzaren eremura bideratutako jardunak ere egiten ditugu hezkuntza-maila guztietako ikasleen artean eta, bereziki Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikasleen artean prebentzioaren kultura sustatzeko. Era berean, herritarrengana, oro har, ere iritsi nahi dugu komunikabideen bitartez, eta lortu nahi dugun helburua aintzat hartuta eduki egokiak eskaintzen ditugu dagokien euskarrian.

Hona hemen garatu ditugun ekintzak:

### Laneko osasuna eta segurtasuna hedabideetan, prebentzio-kultura zabaltzea eta sustatzea helburu hartuta

Komunikazioan eta prentsarekiko harremanetan aditua den pertsona bat sartu zen Osalanen plantillan eta horrek bultzada handia eman dio Erakundeak eta laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako gaiek komunikabideetan duten presentziari.

- 18 prentsa-ohar bidali ditugu OSALANen prentsa-bulegotik.
- 15 saio babestu ditugu komunikabideetan.
- 10 aldiz agertu gara irratian eta telebistan.

» 2015. urtean, komunikabideetan presentzia aktiboa izaten jarraitzeko asmoa du Osalane, laneko arriskuen berri emateko eta haien prebentzioan sentsibilizatzeko. «

### Internet erabiltzea, laneko segurtasun eta osasun gaietan informatzeko eta parte-hartzeko.

Osalanen jakin badakigu internetek aukera handiak eskaintzen dituela laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza, informazioa emateko eta dibulgaziorako, eta aukera horiek ahalik eta gehien baliatzearen, webgune korporatiboan hobekuntzak egin ditugu: gero eta eduki gehiago eskaintzen ditugu, gero eta kalitate handiagoarekin eta irisgarritasun handiagoarekin.

### Web korporatiboaren emaitzak

Osalanen web-orria laneko arriskuen prebentzioari buruzko edukiak hedatzeko plataforma sendo bihurtzen ari da. Jarraian, 2014ko ekitaldiari dagozkion trafikoari buruzko datuak aurkeztuko ditugu, bai eta aurreko urtearekiko izan duen bilakaera ere, oso positiboa iruditu baitzaigu:

	Saioak	Bisitariak	Ikusitako orriak	Saioko / orriak	Bisita berrien ehunekoak
2014	169.797	134.906	395.887	2,33	%77,90
2013	137.494	110.138	344.535	2,51	%77,92
2013tik 2014rako aldakuntza	↑ %23,49	↑ % 22,49	↑ % 14,90	↓ % 6,96	↓ % 0,02



## Sare sozialetako jarduera

Sare sozialen bitartez, mezuak eta berriak berehala ezagutarazteko aukera izateaz gain, herritarrekin elkarrengaitzeko eta herritarrek Osalanera eta laneko arriskuen prebentziora hurbiltzeko aukera ere esku-eskura dugu.

Hainbat sare sozialetan parte hartzen dugu, gero eta gehiago, eta eskura ditugun datuen arabera, maila oso positiboak lortzen ari gara Osalan zein erakunde mota den kontuan izanik.

- **Facebook:** 2013ko abenduan 314 jarraitzaile genituen eta 2014ko abenduan, aldiz, 510 izatera iritsi gara, hau da, % 62,64ko hazkundera izan dugu; halaber, 674 argazki argitaratu ditugu 42 albumetan.

Gure jarraitzaileekiko interakzioetan gorakada handia gertatu da: galdera gehiago, gure argitalpenek "atsegin dut" gehiago lortzen dituzte, eta argitalpen gehiago partekatzen dira; era berean, argitalpenek iaz baino hedapen handiagoa izan dute.

- **Twitter:** 2014. urtean 1.643 tuit argitaratu ditugu; guztira 3.797 dira (batez beste, egunean 4,5 tuit, larunbat, igande eta jaiegunak barnean hartuta).

641 jarraitzaile berri lortu ditugu; horrek esan nahi du, % 46,2ko hazkundera izan dugula, eta 2014ko abenduan gure jarraitzaileen 78 zerrendatan agertzen gara; 2013ko datuekin alderatuta, % 65,38ko gorakada izan dugu urtean. Retuitei (norbaitek gure argitalpen bat bere timeline-an partekatzen duenean) dagokienez, iaz baino % 21,92 gehiago izan dira.

- **Osalanen kanala YouTube:** 142 bideo hedatu dira; 7.112 aldiz ikusi dira, guztira, eta 43 harpidedun daude.

- **OSALAN kontua Google+ euskarrian:** 70 lagun ditugu gure zirkuluetan eta 8.914 bisita.
- **Klout indizea: 57** 2014ko abenduan; iazkotik puntu bat egin dugu gora. Adierazle hori enpresa independente batek neurtzen du, eta erakundeak interneten duen osparen berri ematen du, edukiek irakurleengan duten eraginaren arabera. Otik 100era bitarteko eskala da, eta Osalanek toki onean dago, beste erakunde publiko eta institutu batzuekin alderatuta.

» Atzera bueltarik gabeko bidea egiten ari gara herritarrekiko harremanetarako eredu berria lortzeko, eta Osalanek Internet erabiltzeari bultzada ematen jarraituko du, dibulgaziorako eta kontzientziaziorako aukera ezin hobek eskaintzen baititu, bai eta herritarrengana eta, bereziki, laneko segurtasun eta osasunaren esparruko interes-taldeengana hurbiltzeko ere. «



## Laneko arriskuen prebentzioa Hezkuntzaren maila guztietan

Prebentzioaren kultura arian-arian barneratu behar da, txiki-txikitatik hasita; beraz, irakaskuntzaren maila guztietan txertatu behar da, kasuan kasu biderik egokiena bilatuta. Osalanek honako ekintza hauek burutu ditu hezkuntzaren eremuan:

### Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko prestakuntza Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikasleentzat.

- **Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikasleek bisitaldiak egin dituzte** Osalanen instalazioetara, laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa eta dokumentazioa jasotzeko.

Osalanen Bizkaiko lurralde-zentrora 11 ikastetxetako 186 ikasle etorri dira.



- **ADI proiektua**, Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioarekin eta MUTUALIArekin lankidetzan, Lanbide Heziketako ikasleen artean prebentzioaren kultura sustatzeko.

Proiektu honetan, LHko ikasleei prestakuntza ematen zaie prebentzioaren arloko profesional eta langileen esperientzia praktikoan oinarrituta; bide luzea egina du, jada, proiektuak. 2011. urtean hasiz geroztik, guztira 3.504 ikaslek jaso dute prebentzioaren arloko prestakuntza proiektuaren hiru faseetan.

2014. urtean 3. fasea gauzatu da: 62 ikastetxetan eman ditugu programatutako jarduerak eta 2.906 ikaslek parte hartu dute.



2015ean ere aurrera jarraituko du proiektuak; izan ere, ikasle nahiz irakasleek balantze oso positiboa egiten dute ekimen honi dagokionez, eta Osalanen uste dugu helburu bat betetzen duela: laneko arriskuen prebentzioan gizartea modu aktiboan inplikatzeko helburua, hain zuzen ere, gaiaren gaineko prestakuntza jaso duten eta euren bizipenak partekatzeko prest dauden langile eta profesionalen esperientzia eta jakinduria baliatuta.

- **Hitzaldiak eta dibulgazio-materiala Unibertsitate Eskoletan**, EHUren Gipuzkoako campuseko Arkitektura Eskolan, esaterako, azken mailako ikasleei zuzendutako

» Ekimen honekin jarraitzeko asmoa dugu, oso harrera ona izaten ari baita, eta Gipuzkoara eta Arabara ere hedatzea nahi genuke. «

hitzaldiak antolatzen ditugu, lanean izan ditzaketen arriskuen prebentzioarekin lotutako gaiei buruz.

### Laneko segurtasun eta osasunari buruzko IV. Uda Ikastaroa, UPV/EHUko Uda Ikastaroetan.

Osalanen laneko segurtasun eta osasunari buruzko ikastaroaren laugarren edizioa egin zen ekainaren 26an eta 27an, Donostiako Miramar jauregian. Aurten, 1. saioaren gaia "Lanak eragindako arnaseko gaixotasunak" izan zen, eta 2. saioan, aldiz, "Trastorno muskulu eskeletikok eragiten dituzten laneko arriskuak ebaluatzeko berrikuntza metodologikoa".

Aurreko urteetan bezalaxe, 120 parte-hartzaileek balorazio oso positiboa egin zuten ekitaldiaren interesari eta kalitate teknikoari dagokienez.

➤ 2015. urtean ikastaroaren beste edizio bat antolatuko dugu, laneko segurtasun eta osasunaren eremuko alderdi garrantzitsuak ardatz hartuta. ⬅

### Laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako prestakuntza- eta dibulgazio-ekitaldiak

Osalanen dibulgazioko eta pedagogiako lana betetzeko funtsezko jardueretako bat prestakuntzako eta informazioko ekitaldiak sustatzea da; ekitaldi horien bitartez, erakundeak laneko osasunaren eta segurtasunaren hainbat alderdiri buruzko jakintza teknikoa, esperientzia eta materiala partekatzen du.

### OSALANek antolatutako ekitaldiak.

2014. urtean Osalanek **16 ekitaldi** antolatu ditu prestakuntzarekin eta dibulgazioarekin loturik; ekitaldi

horietan, hainbat gaitako adituek parte hartu dute, bai eta prebentzioaren eremuan inplikaturako agente eta espezialista ezagunek ere.

2. eranskinean ekitaldi horiei buruzko xehetasunak azalduko ditugu.



### Beste erakunde, agente eta entitate batzuek antolatutako ekitaldietan ere parte hartu du Osalanek.

Laneko arriskuen prebentzioa zabaltzeko beste modu bat da beste erakunde batzuek, gizarte-eragileek, laneko arriskuen prebentzian espezializatutako erakundeek, elkarte sektorial eta profesionalek eta abarrek sustatutako ekitaldietan parte hartzea; ekitaldi horietan, Osalanek jakintza ez ezik, laneko segurtasunaren eta osasunaren aldeko ekimenei babesa ere eskaini diezaieke.

Osalanek parte hartutako dibulgazio-ekitaldiak dokumentu honen 3. eranskinean jasota daude zehatz.

## Editatutako argitalpenak

2014an Osalanek argitalpen-katalogoa eguneratu zuen, honako hauen argitalpenarekin osatuta:

Kudeaketa plana Osalan 2014 / Plan de gestión Osalan 2014

Osalanen memoria 2013 / Memoria de Osalan 2013

Euskal Autonomia Erkidegoko laneko istripuen txostena, 2013 / Informe de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales en la Comunidad Autónoma de Euskadi, 2013

Laneko segurtasun eta osasunari buruzko legedia. Xedapen orokorrak

Laneko segurtasun eta osasunari buruzko legedia. Xedapen espezifikoak

Enpresetan drogamendekotasunen prebentziorako planak ezartzeko gidaliburua / Guía para la implantación de un plan de prevención de las adicciones en la empresa

Laneko jazarpen jokabideei buruzko protokoloak prestatzeko laneko Jazarpenaren Euskal Behatokiaren gidaliburua / Guía del Observatorio Vasco de Acoso para la elaboración de un protocolo sobre conductas de acoso Laboral

Osasuna zaintzeko berariazko protokoloa: sudur-barrunbetako eta sinu paranasaletako adenokartzinoma egurhautsaren esposiziopean izaten diren langileetan / Protocolo de vigilancia de la salud específica: adenocarcinoma de fosas nasales y senos paranasales en trabajadores expuestos a polvo de madera

Arrisku Psikosozialen Gida - Prebentzio Ordezkarientzat / Guía de prevención de riesgos psicosociales dirigida al delegado o delegada de prevención



Argitalpen horietaz gain, prebentzioari buruzko edukiak ere argitaratu ditugu formatu sinpleen (triptikoak) eta euskarri digitalen (pen-driveak) bitartez; argitalpen horiek egindako ekitaldietan banatu ditugu eta Osalanen webgunean ere eskuragarri daude.

**“Bigarren eskuko makinak eskuratzeko irizpideak: saltzailearen betebeharrak** / Criterios para la adquisición de máquinas de segunda mano: obligaciones parte compradora”

**“Bigarren eskuko makinak eskuratzeko irizpideak: eroslearen betebeharrak** / Criterios para la adquisición de máquinas de segunda mano: obligaciones parte vendedora”

**“Segurtasun- eta osasun-baldintzak antenisten lanetan** / Condiciones de seguridad y salud en los trabajos de antenistas”

**“Arrisku psikosozialak ere prebenitu daitezke** / Los riesgos psicosociales también se pueden prevenir”

### Euskararen erabilera laneko arriskuen prebentziorako jardueretan

Osalanen ustez, laneko arriskuen prebentzioko jardueretan euskara erabiltzeak prebentzioa ahalbidetzen eta gure Autonomia Erkidegoko langileengana hurbiltzen du, betiere eguneroko eta laneko bizitzan hizkuntza hori erabiltzen duten langileei dagokienez.

Horregatik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntzarekin, terminologia teknikoa finkatzeko eta laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko tresnak euskaraz garatzeko programak lantzen ari gara eta, aldi berean, gure erakundeko langileak prestatzen ere ari gara, baliabide horiek erabil ditzaten.

**Lan-ildo horri eutsi egingo diogu 2015. urtean.**

» Osalane lan handia egin du laneko arriskuen prebentzioaren kultura sustatzeko jardueretan, eta gure ustez, lan horrek fruitua eman du, emaitzak ikusteko modukoak eta oso positiboak izan baitira. Erakundearentzat oso garrantzitsua da eremu hori, prebentzioko jardunek arrakasta izateko ezinbestekoa baita agenteak eta gizartea bera ere irekiak izatea eta laneko segurtasun eta osasunaren gainean sentsibilizatuta egotea. «



# 2.2

## LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO EKINTZEN KALITATEA

Osalanen helburuetako bat zera da, enpresetan gauzatzen dituen prebentzio-jardueren kalitatea hobetzea; horretarako, erakundeak aholkularitza eta laguntza teknikoak emateko ekintzak garatzen ditu, funtsean, enpresetara eta prebentzio-erakundeetara bisitaldiak egiteko kanpainetan oinarrituta.

Prebentzio-ekintza hobetzeko beste tresna eraginkor bat da ekintza gauzatu behar duen agenteari tresnak eskaintzea, hau da, Osalanek hainbat gairi buruzko jakintza eta irizpideak biltzeko egiten dituen gida teknikoak, gomendioak, protokoloak eta abar.

Gure erakundeetan jakin badakigu laneko osasuna eta prebentzioaren kalitatea hobetzea, hein handi batean, ez dagoela gure esku, baizik eta gauzatzen dutenen esku, hau da, enpresetako prebentzio-erakundearen esku: prebentzio-zerbitzu propioak, besterenak eta mankomunatuak. Horregatik, harreman estua izaten dugu erakunde horiekin; aholkularitza eta babesa eskaintzen diegu, alde batetik, eta bestetik, osasun-arloan izaten duten jarduera kontrolatzen dugu, betiere gure erakundeak esparru horretan dituen eskumenak baliatuta.

Jarduera hauek egin dira:

### EAEko enpresetan laneko arriskuen prebentzioa hobetzeko aholkularitza eta laguntza teknikoak

Osalanek aholkularitza ematen die enpresei, langileei, prebentzio-erakundeetara, administrazio publikoetara eta gainerako erakunde eta elkarteetara, laneko arriskuen prebentzioko jarduera teknikoak, osasun-jarduerak eta kudeaketa-jarduerak hobetzeko.

Laguntza teknikoak emateko, alde batetik, Osalanen telefono bidez edo bertatik bertara eta, batik bat, erakundearen

webgunean dauden postontzien bitartez jasotzen ditugun kontsultei erantzuten diegu.

Eta beste alde batetik, zerbitzu tekniko hori emateko, lantokietara bisitak egiteko kanpainak egiten ditugu, eta bisitaldi horietan, arriskuen identifikazioa eta tratamendua egiten laguntzen diegu enpresei eta prebentzio-zerbitzuei.

2014. urtean egindako kanpainak honako jarduera hauetara bideratu dira: eraikuntza-obra; agente kimikoen –hala nola, kromo hexabalentea edo silizea– eraginpean egoteko arriskua duten enpresak; eta arrantzan, basogintzan eta nekazaritzako sasoikako lanean jarduten duten enpresak. Jarduera horietan, arriskuen ebaluazioen kalitateari eta osasunaren zaintzaren espezifikotasunari erreparatu die, bereziki, Osalanek.

### Prebentzio-ekintza hobetzeko tresnak

Enpresaburuei eta laneko arriskuen prebentzio-teknikariei lan-baldintzak hobetzen eta prebentzioaren kudeaketa lagunduko dieten tresnak lantzen eta ezagutarazten jarraitu dugu.

### Zubien eraikuntzan laneko arriskuak prebentzeko gida teknikoak.

2013an hasi genuen proiektu handi hori; beste erakunde batzuekin eta zubi eta bidezubiak eraikitzen jarduten duten enpresa garrantzitsuenekin batera garatzen ari gara, eta 2015ean amaituko dela aurreikusten da.

### Altueran lanak egiteko segurtasun gida.

Osalanek altuerako lanen arriskuen prebentzioarekin lotuta argitaratu dituen segurtasun-gidak berrikusten eta

eguneratzen ari gara, esparru horretako jakintza guztia bilduko duen gida bateratu bat argitaratzeko.

### Eraikuntza-obretako baldintza teknikoen orriak

Laneko arriskuen prebentziorako hainbat gomendio landu eta Etxebizitza Sailburuordetzara helarazi ditugu, eraikuntza-obretako baldintza teknikoen orrietan txerta ditzaten.

**2015. urtean, baldintza-orriak lantzen jarraituko dugu, obra-unitate guztietarako gomendio berezituak eginez.**

» Datozen urteetarako, Osalanen lan-ildoetako bat izango da enpresei laneko arriskuen prebentzioko jardueretan laguntzea, batik bat, ETEei, arrisku garrantzitsuak dituzten enpresei eta, horien barruan, lehen sektorean jarduten duten enpresei erreparatuta. Bisitaldi-kanpainak eta aholkularitza-jarduerak egiten jarraituko dugu, bereziki, prebentzioa kudeaketan txerta dadin ahalbidetzeari garrantzia emanez. Gure erakundearen, jarduera teknikoak eta osasun espezifikokoaren eta kolektiboaren zaintza hobetzeko tresnak eta gomendioak eskaintzen jarraituko dugu. «





# 2.3

## ERAKUNDEEN KONPROMISOA ETA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA

Lan-eremu horretako jarduerak laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko eskumenak dituzten administrazio eta erakunde publikoen koordinazioa sustatzera bideratu dira, bai eta haien arteko lankidetzaren ere, laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko proiektuak garatzen dituztenean.

Ildo beretik, Osalanek hainbat jardun-ildo izan ditu administrazioaren estamentuetara zuzenduta eta, kasuan kasu, helburua desberdina izanik. Alde batetik, tokiko Administrazioekin lankidetzan aritzeko asmoa dugu, administrazio horietan prebentzioko egiturak eta jarduerak garatzearren; bestetik, Eusko Jaurlaritzaren organoekin koordinatzea ere lortu nahi dugu, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko erantzukizunak partekatuta ditugun aldetik; hirugarren ildo bat Estatuko eta beste Autonomia Erkidego batzuetako Administrazioarekin lankidetzan aritzera bideratu da; eta, azkenik, Europar Batasuna osorako lankidetzan ere aurrera egin nahi dugu.

Honako aurrerabide hauek egin dira:

### Tokiko Administrazioan laneko arriskuen prebentzioa garatzea

Osalanek udalerrietan dagoen amiantoa kudeatzen lagundu die EAeko Udalei.

Horretarako, udaletako 16 teknikariri prestakuntza eman diegu amiantoa detektatzeko eta tratatzeko; bi ikastaro izan dira, Bilbon eta Donostian, eta IVAPen laguntzarekin antolatu ditugu. Prestakuntza-programa hori berriro ere egin daiteke 2015ean, Udalek eskaera eginez gero.



### Laneko arriskuen prebentzioaren eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako organoekiko koordinazioa

#### • Osalanen, Lan Agintaritzaren eta Laneko Ikuskaritzaren arteko komunikazioa

2014. urtean, Osalanek harreman estua izan du Lan Agintaritzarekin eta Eusko Jaurlaritzaren mendeko Laneko Ikuskaritzarekin, informazioa elkartrukatzeko eta ekintzak batera garatzeko.

Azken horiei dagokienez, EAEn gertatu diren laneko istripu hilgarriak aztertzeke eta jarraipena egiteke eratu den lantaldea nabarmenduko dugu, bai eta dibulgazio-ekitaldietan, kanpainetan eta kontrol-jardunetan izandako lankidetzaren ere.

#### • Osasun Sailarekiko lankidetzaren

Osalanen eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren arteko lankidetzaren oso positiboa izan da, eta laneko arriskuen prebentzioko osasun-jarduerak arautzen dituen araudia lantzea eta izapidetzea izan ditu ardatz; izan ere, araudi horretan bildu behar dira Osalanek garatzen dituen eta lan-osasunerako biziki garrantzitsuak diren proiektuak, hala nola, laneko historia medikoaren eredu eta Prebentzio-zerbitzuen gutxieneko datu-multzoa ezartzea.

Era berean, Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekiko lankidetzaren nabarmendu nahi dugun, Osalanek argitaratutako "Enpresetan drogamedekotasunen prebentziorako planak ezartzeko gidaliburua" berraztertu baitu.

#### • Laneko arriskuen prebentzioaren jarraipena egitea herri-lan handietan

Herri-lanetan eta azpiegitura handietako obretan laneko arriskuen prebentzioa txertatzearen jarraipena egiteko baterako jarduerari eutsi egin diogu Lurralde Batzordeen bitartez eta horretarako sortutako lantaldeen bitartez; Lurralde Batzorde horietan Lan Agintaritzak, Laneko Ikuskaritzak, Foru Aldundiak, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila eta inplikaturako enpresa publikoak biltzen dira.

Jardun horien esparruan, guztira 98 bisitaldi egin ditugu; honako koadro honetan ikus daiteke jarduera hori, laburbilduta:

	Bizkaia	Gipuzkoa
<b>Azpiegitura handietako Jarraipen Batzordearen bilerak</b>	<b>6</b>	<b>3</b>
Batzordeak azpiegitura handietara egindako bilerak	-	9
Laneko Ikuskaritzarekin batera egindako bisitak	19	32
Osalanek egindako bisitak	28	10
<b>BISITAK GUZTIRA</b>	<b>47</b>	<b>51</b>

Bizkaian, obra handien jarraipena egiteko Batzordeak eratu dira; zehazki, honako hauek:

- **Bilboko Portuko** Agintaritzak sustatutako obretan laneko arriskuen prebentzioaren jarraipena egiteko batzordea irailaren 2an eratu zen, eta Lan Agintaritzak, Osalan eta Portuko Agintaritzak biltzen dira. 3 bilera egin dira, eta Osalaneko eta Laneko Ikuskaritzako teknikariek obretara egindako bisitaldietan lortutako emaitzak aztertu dira.
- Bilboko Udalak sustatzen duen **Deustuko Kanalaren** obran laneko arriskuen prebentziorako lankidetzaren hitzarmena. 2014ko abenduaren 5ean proiektu handi horren -proiektuak 30 urteko iraupena izango duela aurreikusi da- jarraipena egiteko batzordea eratu zen, eta Laneko Agintaritzak, Osalanek eta Bilboko Udalak parte hartzen dute.

Azpiegitura handiak eraikitzeke obren egoera, oro har, segurtasunari dagokionez, nabarmen hobetu da hasierako egoerarekin alderatuz gero, oraindik ere bisitatutako obra gehienetan errepikatzen diren gabeziak detektatzen badira ere, horregatik, jarduerak jarraitu egingo du 2015ean.



## Lankidetzaren autonomia-erkidegoko eta estatuko erakunde eta Administrazio Publikoekin

- Arrantza-sektoreko CANO proiektua, kantaulariari erlaintzeko autonomia-erkidegoetako Laneko Segurtasun eta Osasun Erakundeekin lankidetzan

Laugarren urtez jarraian, Kantabriako, Asturiaseko eta Galiziako Laneko Segurtasun eta Osasun Erakundeekin batera lanean jardun dugu arrantzaren sektorean, eta oraingoan, itsasbazterreko inguraketa-modalitateko arrantza-ontzi bateko arrisku "tipoen" ebaluazioa egiteko proiektua landu dugu.

» Euskadin laneko arriskuen prebentzioarekin lotuta ditugun arazoak berdinak edo antzekoak dituzten beste Autonomia Erkidego batzuekiko lankidetzan jarraitzeko eta indartzeko asmoa dugu, beste eremu eta lurralde batzuetara ere zabalduta. «

- Estatuko eta beste autonomia-erkidego batzuetako Laneko Segurtasun eta Osasunerako organo eta erakundeekiko lankidetzaren

Osalanek Estatuko administrazioarekin eta erakundeekin duen lankidetzaren bistakoa da; izan ere, Osalanek parte hartzen du erakunde horiek Estatuan antolatutako lantalde eta ekitaldietan eta, batik bat, LSHINek eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalak antolatutakoetan. Horrela, bada, Osalanek honako lantalde hauetan parte hartzen du:

Laneko segurtasun eta osasunerako batzorde nazionalen osoko bilkuran

Laneko segurtasun eta osasunerako batzorde nazionalaren eratzeko taldean

Laneko segurtasun eta osasunerako batzorde nazionalen nekazaritzako lantaldea

Laneko segurtasun eta osasunerako batzorde nazionalen amiantoari buruzko lantaldea

Laneko segurtasun eta osasunerako batzorde nazionalen arrisku psikosozialen taldean

LSHINen istripuak ikertzeko taldea

Laneko segurtasun eta osasunerako batzorde nazionalen muga-balioen taldean

Laneko segurtasun eta osasunerako batzorde nazionalen errepideko lan-istripuak prebenitzeko lantaldean

LSHINen laneko istripu-kopuruak aztertzeko taldea

LSHINen makinek eragindako lan-egoera arriskutsuak aztertzeko taldea

LSHINen espezialista profesionalaren muga-balioen lantaldea

Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren eta autonomia-erkidegoen arteko BATZORDE MISTOA

Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren eta autonomia-erkidegoen arteko amiantoari buruzko Batzorde Tekniko Mistoaren lantaldea

Laneko osasunari buruzko txostena - Osasun Sistema Nazionalen lurralde arteko kontseiluaren osasun publikoko batzordearen lantaldea

GSINen amiantoari buruzko hitzarmenaren lantaldea

GSINen ezintasunak balioesteko lantaldea (Bizkaia eta Gipuzkoa)

AENORreko AEN/CTN 81/SC 4 batzordea - Agente kimikoen ondoriozko arriskuen ebaluazioa

AENORreko AEN/CTN 081 batzordea - Prebentzioa eta norbera eta taldea babesteko baliabideak lanean

AENORreko AEN/CTN 180 batzordea - Obretako aldi baterako lanetarako ekipamendua

AENORreko 02 AEN/CTN 180/N 032 lantaldea - Enkofratuak

AENORreko 07 AEN/CTN 171/SC 03 lantaldea - Amiantoa

### SAF€RA proiektua, hazkunde iraunkor eta adimenduna helburu duen industria-segurtasunari buruzko Europako ikerkuntza koordinatzeke

2012. urtean Osalanek Europako SAF€RA proiektuarekin bat egin zuen, bazkide gisa, Europako Era-net proiektuen barruan; proiektu horien helburua industria-segurtasunari buruz Europan egiten diren ikerketak koordinatzea da.

Lankidetzakonpromisoari aurre egiteko, laneko arriskuen prebentzioaren inguruko ikerketa-proiektuetarako beken 2014ko deialditik aurrera, Osalanek diru-laguntzen zati bat SAF€RA proiektuak onartzen dituen ikerketa-proiektuak finantzatzera bideratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako erakundeek parte hartzen dutela.

2014ko deialdian onartutako proiektuen artean, SAFERAK onartutako bat zegoen: "KPIetan oinarritutako metodo bat eta software-tresna erabilerraz bat garatzea eta baliozkotzea, lan-segurtasuneko eta -osasuneko kudeaketaren erresilientzia neurtzeko (KPI-OSH-Tool)", eta gure Autonomia Erkidegoan kokatzen den "Tecnalia Research & Innovation" Fundazioak parte hartu du bertan.

SAF€RA 2015 deialdia 2014ko maiatzaren 15ean argitaratu zen. Deialdiko hautaketa-prozesuari jarraiki, eskaera elektronikoak aurkezteko epea 2014ko uztailearen 10ean amaitu zen; hautaketako bigarren fasera zein proposamen igaro diren 2014ko irailaren 15ean jakinarazi zen, eta proiektuak behin betiko aurkezteko epea 2014ko urriaren 30ean amaitu zen.

» SAF€RA proiektuaren esparruan 2015. urtean gauzatzeko diren eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako erakundeek parte hartzen duten ikerketa-proiektuak diruz lagundu ahal izango ditu Osalanek, erakundeak 2015ean argitaratuko duen deialdiaren bitartez. «



- **Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Europako Agentziarekiko lankidetz**

Osalanen eta Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Europako Agentziaren arteko lankidetzira iraunkorra eta estua da; izan ere, batak bestearen ekitaldietan parte hartzen du, eta proiektu nahiz ekimenei buruzko informazioa elkartrukatzeko dute.

Esaterako, apirilaren 15ean Bilbao Porten erakunde arteko ekitaldi bat izan zen eta bi erakundeek parte hartu zuten, elkarren artean giro ona dagoela agerian utzita.

- **2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia lantzea**

2014. urtean Osalanek egin duen lankidetzako jardura garrantzitsuenak Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia berria diseinatzea izan da; 2014an amaitu den aurreko strategiaren ondorengoa da hori, eta esfortzu eta baliabide ugari baliatu dituzte hori lantzeko.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren jarraibideei jarraiki, 2020ra bitarte laneko segurtasunaren eta osasunaren esparru estrategikoa diseinatzeko parte-hartze prozesuaren buru izan da Osalan; laneko arriskuen prebentzioaren arloko interes-talde guztiek parte hartu dute prozesu horretan. Estrategia berri hau, Gizarte Elkarrizketaren Mahaian, Osalanen Kontseilu Nagusian eta Gobernu Kontseiluan aurkeztu ostean, gizarteari aurkeztuko zaio, eta datozen urteotarako lan-ildoak finkatuko ditu.

» 2015. urtean estrategia berria hedatu eta gauzatzen hasiko da; horretarako, lan handia egin beharko da estrategia hedatzeko, bai eta ekintzak abiarazi eta jarraipena egiteko egiturak antolatzeko ere; Osalanen 2015erako Kudeaketa Planean jardura horiek guztiak sartuko dira. «

Laneko arriskuen prebentzioaren esparruan jarduten duten administrazio eta erakundearen arteko lankidetzaren arloa, eta Administrazioek prebentzioko jardura eta egituren garapenean betetzen duten egitekoa bera ere funtsezko arloak dira Osalanentzat, eta erakundea lan handia egiten ari da arlo horietan. Aurrera egin dugula esan dezakegu, baina ez guk nahi adina eta guk nahi bezain azkar; eta zalantzarik gabe, lan-ildo horrek gure lehenetsunetako bat izaten jarraituko du.



## LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ALORREKO KONTROLA ETA AHOALKULARITZA, BATEZ ERE ETEEI

Jarduera-ildo honen bidez, Osalanek aholkularitza eta laguntza teknikoa ematen die EAEko enpresa eta langileei, eta bereziki Enpresa Txiki eta Ertainei, haiek izaten baitute zailtasun handiena prebentzio-jarduerak garatzeko. Funtsean, bisitaldi-kanpaina bat egin da; gure erakunde teknikiariak lantokietara joaten dira prebentzioarekin lotutako arazoak eta gabeziak bertatik bertara ezagutzeko eta gomendioak emateko.

Aholkularitza-lan horrekin batera, Lan Agintaritzak eta industria-segurtasunaren arloko Agintaritzak gauzatzen duten kontrol-jarduerari lagundu ere egiten diogu; izan ere, laguntza teknikoa jasotzeko eskaerei Osalanek erantzuten baitie.

### KONTROL ARLOA

#### Amiantoa daukaten materialak kentzeko lan-planen kontrola

Esta es una tarea de asistencia técnica a la Autoridad LaOsalanek laguntza teknikoa ematen dio Lan Agintaritzari, amiantoa duten materialak kentzea baimentzeko prozeduraren esparruan; lan hori egiten duten enpresek aurkezten dituzten lan-planak aztertu eta horiei buruzko txostenak egiten ditu, lan horiek zer baldintzetan gauzatzen diren zehaztuta. 2014an:

- Guztira **335 lan-plan** aztertu ditugu: 108 Araban, 95 Bizkaian eta 132 Gipuzkoan.
- **338 landa-bisitaldi** egin ditugu: 158 alde zuzenekoak eta 180 egiaztatzeko, baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.

#### Prebentzio-zerbitzuen jardunaren kontrola

Arlo honetan, Osalanek bi jarduera mota burutzen ditu, betiere laneko arriskuaren prebentzioan espezializatutako erakundeek dagokienez, gure erakundeak esleituta dituen eginkizun eta gaitasunak betez.

- Osalanek aholkularitza teknikoa ematen dio Lan Agintaritzari Kanpoko Prebentzio Zerbitzuen jarduteko eta egiaztatzeko baldintzak kontrolatzeari dagokionez, bai eta Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuak eratzeari dagokionez ere.
- Bestalde, Osalanek prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduerari baimentzen eta kontrolatzen du, Osasun Agintaritzaren arloko.

Bigarren esparru horri dagokionez, EAEn diharduten **prebentzio-zerbitzuetako osasun-datuaren fitxategia** ezartzen amaitu dugu. Halaber, prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueraren auditoria edo kanpoko ebaluazioa egiteko pertsona edo erakunde espezializatuak sustatu dira, erakunde horien osasun-baimenen izapidetze telematikoa ezartzeko prozesuaren lehen fasean.

#### Makinen segurtasunari buruzko zuzentaraua (2006/42/EE) betetzea

Makinen segurtasunerako Zuzentarauaren esparruan Osalanek eta industria-segurtasunaren arloko Agintaritzak 2011n sinatutako batera jarduteko protokoloaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari aholkularitza teknikoa emateko jarduerak garatu ditugu, makinek eta haien fabrikatzaileek, inportatzaileek eta komertzializatzaileek aplikatu beharreko araudia betetzen dutela kontrolatzeko.

2014. urtean Osalanek 36 prentsa kontrolatu ditu 27 enpresatan, eta ez-betetzei dagozkien 9 espediente izapidetu ditu; horietaz gain, beste 13 txosten ere egin ditu hainbat motatako ekipoetan identifikatutako ez-betetzeekin lotuta. Horien guztien berri dagoen Sailari eman dio.

## AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA ENPRESEI

2014an kanpaina hauek gauzatu ditugu:

### Eraikuntza-lanak

Osalanek kanpaina hori egiten du urtero, Lurralde-zentro bakoitzean zabaltzeko jasotako jakinarazpenei esker abian direla badakien obrak bisitatzearen; bisitaldi horietan, zer gabezia dituzten identifikatzen da, eta horiek zuzentzeko gomendioak ere ematen ditugu.

2014. urtean guztira **eraikuntzako 1.374** lan bisitatu ditugu EAE osoan; horietatik 368 Araban daude, 830 Bizkaian eta 626 Gipuzkoan, eta **1.824 txosten** egin ditugu obretan identifikatutako kontrata eta azpikontratei buruz.

**Eraikuntzaren sektorea Osalanen helburu izango da 2015ean ere.**

### Komunikazio-antenen instalazioen sektorea

Aurreko urteetan garatutako kanpaina burutzeko, gomendioak biltzen dituen triptikoak bidali ditugu sektoreko enpresetara, hiru Lurraldeetako sektoreko elkarteetara eta Telekomunikazioetako Ingeniarien Elkargora, eta

Osalanen webgunean ere argitaratu dugu, zabaltzearen.

### Kromo hexabalentearen eraginpean egotea

Osalanek kromo VI elementuaren eraginpean dauden langileen egoera ebaluatzeko kanpaina egin du soldadurekin, pinturekin, kromatu eta nikelatuekin lan egiten duten enpresetan.

Ekintza garatzeko 30 enpresa hautatu dira (9 Araban, 12 Bizkaian eta 9 Gipuzkoan) eta lehen bisitan horietatik 9k ez dutela kromoarekin lan egiten eta 3k kromo III-rekin soilik lan egiten dutela egiaztatu da.

Kanpaina aribidean dago; neurketa higienikoak egiteko bigarren bisita egin zaie 7 enpresei eta 13 enpresa 2015eko lehen hiruhilekoan bisitatzeke daude. Behin enpresetan egindako neurketak laborategian aztertuta, ondorioak atera eta dagozkion gomendioak emango dira. Kanpainak 2015ean jarraituko du.

**Kanpainak 2015ean jarraituko du.**

### Lipoatrofia erdizirkularra

Ekintza Gipuzkoako Foru Aldundiko langileengan detektatutako kasuetan ardaztu da, patologia mota horren laneko jatorria bertan dagoelako susmoa baitago. Ildo horretatik, aldundiarekin bilerak egin dituzte langileei egindako azterketen ostean identifikatutako arazoa definitu eta baloratzeko, eta GFako kasuekin datu-basea sortu eta kasuaren definizio klinikoa mantentzea erabaki dute. Osalanek GFArekin lankidetzan jarraituko du langileen artean (1.800 langile) kasuen jarraipena eta bilaketa aktiboa egiten, 2015eko maiatzerako aurrez ikusita dagoena.

### Agente kimikoak zerbitzu-sektoreko hainbat azpisektoretan: tindategiak, garbiketa-enpresak, ile-apaindegiak, inprentak eta abar

EAEko tindategietan agente kimikoen eraginpeko egoera aztertzen hasi gara, eta Arabako Lurralde Historikotik hasi gara baina beste bi Lurraldeetara ere jo dugu.

18 tindategiekin jarri gara harremanetan, eta gaiari buruzko dokumentazioa eskatu eta aztertu dugu; bi enpresak ez diete erantzunik eman egindako errekerimenduei, eta Lan Agintaritzari horren berri eman diogu.

**Kanpainak 2015ean jarraituko du.**



## 2.5

### LAN-BALDINTZAK ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA KUDEAKETAN TXERTATZEA

Jarduera-eremu honetan, alde batetik, euskal enpresetan lan-baldintzak hobetzeko ekintzak biltzen dira, bai eta enpresa horien eta, bereziki, ETEen kudeaketan laneko arriskuen prebentzioa txertatzera bideratutako jarduerak ere.

Ildo beretik, lan-baldintzetan eta laneko ingurumen-baldintzetan erabakigarriak diren faktoreetara bideratu dugu jarduera, hau da, makineta eta agente kimikoetara; makinak erosteko prozesuak aztertu ditugu, eta agente kimikoak identifikatu eta kontrolatu ditugu. Halaber, errepideko joan-etorrietan izaten diren istripuekin lotutako jarduera ere egin ditugu.

Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeko ekintza espezifikoak ere landu ditugu, eta teknologia berriekin lotutako arriskuen ezagutza sustatzeko lan egin dugu.

Arlo honetako ekintza garrantzitsuenak dira, besteak beste, honako hauek:

#### Lantaldeak

- SPRIrekin elkarlanean, makineria berria erosteko enpresei diru-laguntzak ematen dizkien Produkzio Ekipamenduak Modernizatzeko –PEM– programa garatu du Osalanek.

Osalaneko teknikariek 320 ekipamendu aztertu dituzte eta 315 txosten positibo eta 5 negatibo egin dituzte. Oraingoz, onartutako 295 enpresetatik 257 izan dira programaren onuradun, eta 333 ekipamendu berri erosi dituzte.



LURRALDEA	ONARTUTAKO EKIPAMENDUAK	ONARTUTAKO ENPRESAK	IKUSKATUTAKO EKIPAMENDUAK	TXOSTEN POSITIBOAK	TXOSTEN NEGATIBOAK
BIZKAIA	109	88	100	98	2
GIPUZKOA	187	137	159	158	1
ARABA	86	69	79	77	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>382</b>	<b>294</b>	<b>338</b>	<b>333</b>	<b>5</b>

- Osalanek “Makineria berria erosteko aholkuak” argitalpena argitaratu eta hedatu du Bilbon maiatzaren 16an izan den jardunaldi tekniko batean: “MAKINERIAREN EROSKETA: MAKINERIA BERRIA ETA BIGARREN ESKUKO MAKINERIA”..

» Gure erakundea “Manual para la adecuación a la legislación vigente de los equipos de trabajo (R.D. 1644/2008)/Lan-ekipoak indarreko legeriaren arabera egokitzeko eskuliburua (1644/2008 ED)” eskuliburua eguneratzen ari da, eta lan hori 2015ean bukatuko dugula aurreikusten dugu. «

### Errepideko joan-etorrietan gertatzen diren lan-istripuen prebentzioa

Errepidean gertatzen diren lan-istripuei –misiokoak eta in itinere– dagokienez, Osalanek askotariko jarduerak egin ditu.

- Garraioaren eta logistikaren sektoreetako ezbehar-tasa aztertzen ari gara, istripuen azterketa batean oinarrituta; 2015ean, horren osagarri, landa-lana egingo dugu, eta neurriak proposatzeaz gain, jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna bat ere garatuko dugu.
- Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzarekin harremanetan egon gara, errepidean gertatzen diren lan-istripuen arloko informazioa eta sentsibilizazioa lantzeko, eta lan-ildo hori indartzeko asmoa dugu datozen urteotan.



- Horretaz gain, errepideko lan-seguritasunaren arazoa lantzeko lantalde batean parte hartzen du Osalanek. LSHIN da lantaldearen buru, eta gizarte-eragileen, Administrazio zentralaren (Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta Gizarte Segurantzak) eta autonomia-erkidego batzuen ordezkariak parte hartzen dute.
- Azkenik, Osalanek Euskadiko lan-arloko trafiko-istripuen bilakaerari buruzko azterlana argitaratzen du urtero; bertan, gertatu diren istripuak hainbat aldagairen arabera aztertzen dira, eta joerak proiektatzen dira.

» 2015ean ere eutsi egingo diogu lan-ildo horri, errepidean gertatutako lan-istripuen kopurua oso garrantzitsua baita, eta kopuru hori murrizteko ahalegina egin behar dugu. «

### Arrisku berriak edo hain ezagunak ez direnak aztertzea

- Lanean **nanopartikulen** eraginpean egoteagatik sortzen diren arriskuei buruzko bibliografia, informazioa eta azterlanak bildu ditugu, eta arrisku horiek gehiago ezagutarazteko lanean hasi gara, ikerkuntzarako diru-laguntzak emanez, dibulgazio-ekitaldiak sustatuz eta foroetan parte hartuz.
- Halaber, **eremu elektromagnetikoen (CEM/EMF)** eraginpean dauden langileen osasunerako arriskuak ebaluatzen ere hasi gara, baina konplexutasun tekniko handiko alorra izaki, ez dago irizpide simple eta bateraturik gaia lantzeko, eta kualifikazio-maila oso handiko giza baliabideak eta enpresa gehienek esku ez dauden baliabide teknikoak behar dira horretarako.

Horregatik guztiagatik, Osalanek "arriskuak identifikatzeko" eta "eraginpean egotearen arriskua zenbatesteko" tresna bat garatu nahi du; hartara, enpresak ezkutuko arrisku horiek agerian utziko ditu eta arrisku horiei aurre egiteko moduan oinarrituta, erabakiak hartu ahal izango ditu.

Oraingoz, lan hauek egin ditugu: egoeraren azterketa egin dugu, Foru Aldundiarekin elkarrizketa izan dugu jardun-ildo orokorrak adosteko, eta CEM neurtzeko ekipoa erosteko proposamena egin dugu.

» Arrisku berriek edo hain ezagunak ez diren arriskuen eraginpean egoteagatik osasunean sortzen diren kalteen prebentziorako jakintza kudeatzea lehentasunezko ildoak izango da Osalanentzat datozen urteotan. «

Substantzia kimikoei buruzko Europako REACH Erregelamendua EAEn ezartzeko prozesuan ez dugu lortu nahi adina aurreratzea. Dena den, Osalan prest dago organo eskudunekin batera jarduteko esparru horretan.

## Laneko arriskuen prebentzioa, genero-ikuspegia aintzat hartuta

2015. urtean bultzada handia eman diogu laneko arriskuen prebentzian genero-ikuspegia txertatzera bideratutako lan-ildoari. Izan ere, Osalanen gai horretarako dagoen lantalde bereziak egindako proposamenak garatu ditugu; jarraian, lan horren emaitzak laburbilduko ditugu.

- “Generoaren analisia lan-osasunaren eremuan” **jardunaldi teknikoa** antolatu genuen urriaren 31n, Gasteizen, jakintza sustatzeko eta prebentzian genero-ikuspegia txertatu beharraz sentsibilizatzeko.
- **Emakunderekin hitzarmena** sinatu da hainbat alorretan baterako ekintzak garatzeko, hala nola emakume langileen laneko osasunean eragiten duten gaietan aholkularitza, dibulgazioko eta prestakuntzako materialaren prestaketa eta hedapeneko ekitaldien antolaketa, besteak beste.

- Osalaneko **informazio-sistemaren** inguruan lanean hasi dira lanetik sortutako osasun-kalteen datuak atera eta ustiatzeko, generoaren aldagaia kontuan hartuta, kalte horien denboran zeharreko egoerari eta bilakaerari buruzko informazioa eskaintze aldera.
- **Ugalketa-osasunaren** prebentziorako triptiko bat diseinatu dugu eta 2015ean zabalduko dugu.

» Hurrengo urteetan, Osalanek indartu egingo du genero-ikuspegia aintzat hartzen duen laneko arriskuen prebentzioaren lan-ildoia, kolektibo jakin batzuen prebentzio-premia espezifikoa biltzen dituen jardun-ildo zabalago baten barruan. «



Arlo honetan izandako lorpenen balantza positiboa egiten du Osalanek, baina jakin badakigu lan asko dugula egiteko oraindik prebentzioko kudeaketa eta lan-baldintzak hobetzeari dagokionez. Horregatik, Osalanen datozen urteetarako Kudeaketa Planetan agertuko dira oraindik bi gai horiek.





CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/  
Irekia-Eusko Jaurlaritza/Mikel Arrazola >  
v



# 2.6

## LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA LEHEN SEKTOREAN

Lehen Sektoreko jarduera eta enpresetan laneko arriskuen prebentzioa sustatzea lehentasunezko lan-ildo da Osalanen, eta azken urteotan ildo hori garatzen ari gara. PREBEN planen testuinguruan ekin genien jardunei, arlo horretan eskuduna den Sailarekin batera, baina esparru hori gairatu dute eta, orain, sektorean txertatze-maila handiagoa lortu nahi dugu.

Garatutako ekintzen xede arrantza-jarduera eta nekazaritza eta basozaintzako jarduera izan dira, eta prebentzioaren eta lan-baldintzen ikuspegitik begiratuta arazo asko izaten dituen sektore honetan Osalanen presentzia finkatzen ari gara.

Nabarmentzekoak dira honako ekimen hauek:

**Arrantza-sektorean laneko arriskuen prebentzioko ITSASPREBEN planetik eta nekazaritza eta basozaintzako sektoreko NEKAPREBEN planaren ondoriozko ekintzak garatzen jarraitu dugu**

Ekintza hori OSALANek eta AZTI Tecnaliak sinatutako hitzarmenaren baitan garatu da. Hitzarmen horri esker hainbat ekintza ari dira garatzen Itsasoaren eta Elikagaien Berrikuntzan Aditua den Zentro horren eskutik: gidaliburuak, aplikazio eta baliabide informatikoak, baliabide didaktikoak eta dibulgaziozkoak, ingurunearen hobekuntza eta egokitzapen teknologikoa eta arazo muskulu eskeletikoen prebentzioa sektorean.

### Arrantza-jarduera:

2014ko urritik 2015eko martxora bitarte, «Inguraketa luzatzeko maniobran ikusgarritasuna hobetzeko azterketa» proiektua garatu dugu. Proiektuak amaitu ditu azterketa, proba pilotu eta emaitzen azterketako etapak eta orain ondorioak ezagutarazteko fasean dago

eta horiek erakusten dutenez, lan-baldintzak nabarmen hobetzen dira maniobratzeko arrisku-eremuetan ikusgarritasuna areagotzen denean. Hori horrela, emaitzak egun 58 ontzi dituzten EAEko inguraketa-ontzidietan aplikagarriak direla ondorioztatzen da.

### Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera

«Mahats-bilketako lanetan profesionalen ohitura ergonomikoak hobetzea: mahatsa eskuz biltzea» helburu nagusia duen proiektua gauzatu dugu. AZTI-Tecnaliako teknikariak izan dira lanaren gidari, UAGA sindikatuaren eta AGA nekazaritzako eta abeltzaintzako kudeaketa-zentroaren, mahastizaintzako eta ardogintzako enpresen eta fisioterapiako adituen laguntza izan dute.

Lortutako emaitzek erakusten dutenez, karga ergonomikorik handiena sortzen duten jarduerak mahats-bilketa eta eskuzko kimaketa dira. Emaitzak argitaratu eta webgunearen bidez zabaltzeko fasean dago: <http://tme.infopreben.com/>. Transferentzia-aukerei dagokienez, kontuan har daitezke Arabako 1.161, Bizkaiko 411 eta Gipuzkoako 1.216 mahastiak.

### Kantauriar erlaitzeko autonomia-erkidegoetako laneko segurtasun- eta osasun-erakundeekin lankidetzak, arrantza-sektorean laneko arriskuen prebentziorako proiektuak gauzatzeko

Laugarren urtez jarraian garatu dugu ekimen hori, eta aurreten ere arrakasta eta interes handia eragin ditu, lortutako produktuengatik ez ezik, baliabide publikoak baterako lanaren bitartez ahalik eta errentagarrien bihurtzearen eraginkortasunagatik ere; izan ere, EAErekin antzeko arazoak partekatzen dituztenen jakintza eta esperientzia baliatzeko aukera ematen du.

- 2014. urtean testu bakar batean bildu ditugu aurreko urteetan argitaratutako **“Arrantza-sektoreko osasun-ikuskaritzarako gidaliburua”**ren 3 edizioak, eta eguneratzeaz gain, urte hauetan izan diren aldaketetara ere egokitu dugu. Gidaliburu berri hori bukatu eta argitaratu dugu.
- 2013az geroztik lantzen ari garen bigarren proiektua **“Inguraketa-ontzi batean arrisku moten ebaluazioari”** buruzkoa da. Ekitaldi honetan arrisku psikosozialak ebaluatzen amaitu dute eta segurtasun, higieine eta ergonomiari dagozkien arriskuak berrikusi dituzte.
- **Gaur egun, arrisku biologikoen ebaluazioa bukatzen ari gara, gainerako ebaluazioak berrikusten eta testuak bateratzen. Horrekin guztiarekin batera, inguraketa-ontzi bateko marinelaren osasuna zaintzeko proposamena lantzen ari gara (ebaluazioa horri buruzkoa da).**

**Lehen sektoreko enpresetara bisitak egiteko kanpainak, laneko arriskuen prebentziorako jardueretan aholkularitza eta laguntza teknikoak emateko**

Osalanek honako jardun hauek egin ditu lehen sektorean:

**EAEEn baxurako arrantzan** diharduten ontzi eta armadoreak bisitatzea

Gertatutako istripuak ikertzeko bisitak egin dira, bai AZTIrekin egindako baterako jardueren testuinguruan, bai Kantauri isurialdeko erkidegoekiko lankidetzaproiektuaren testuinguruan.

**Nekazaritzako sasoiko lanaren** urteko kanpaina, EAEko Erakunde arteko Mahaiak prestatutako 2013-2016rako Sasoko Lanaren Arretarako II. Plan Integralaren testuinguruan.

Arabako patataren kanpainetan eta mahats-bilketetan parte hartzen duten sasoiko langileen eta enpresen artean laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko jarduera garatu du Osalanek aurtan ere.

Erakundearen jarduera honetan datza: enpresei, langileei eta erakunde publikoei informazioa eta aholkularitza teknikoa eskaintzea eta laneko arriskuak prebentzeko jarduera, gertatutako laneko istripuak eta identifikatutako lanbide-gaixotasunak aztertzea.

2014an 30 bisita egin ziren guztira: 5 Osakidetzako zentroetara, 4 udaletxeetara, 2 UAGA eta ABRA elkarteetara, 6 kooperatibetara, 7 upategietara eta landako 6 bisita uzta-bilketan zehar.

**Ardoa eta txakolina ekoizten** duten enpresetara bisitak egiteko kanpaina.

2012an eta 2013an egindako kanpainetako emaitzetan oinarrituta lan egin dute, nekazaritzako makinei eta fitosanitarioen erabilerari buruzko gaien dibulgaziozko material arrunta osatzeko bisitak eginda.

**Basogintzako** sektorean laneko arriskuen prebentzioa sustatzea.

- **Egur-zuhaitzen hazkuntzan diharduten enpresak bisitatzeko kanpaina**

Basogintzako sektorean parte hartzen jarraitu du Osalanek, sektore oso arriskutsua izaki, prebentzio-

jarduerak zailtasuna handiak dituelako. 2014an basogintzako 35 enpresa eta lantoki bisitatu ziren (23 Bizkaian eta 12 Gipuzkoan), alde batetik, istripuak ikertzeko eta, bestetik, lan-baldintzak eta prebentzioaren kudeaketa gainbegiratzeko.

- **Azken urteotan basogintza-sektorean izandako ezbeharrei buruzko azterketa**

Basogintzan izaten diren lan-istripuen kasuistika hobeto ezagutzearren, sektorearen ezbehar-tasari buruzko azterlana egin dugu eta, hartara, prebentzio-eragin handiagoko ekintzak diseinatu ahal izango ditugu.

**Lehen sektoreak Osalanen lehenetsunetako bat izaten jarraituko du datozen urteotan, prebentzioan problematika handieneko eremuetako bat den aldetik, jardueri atxikitako arrisku handiengatik, bai eta finakoak ez diren lantokietara –itsasontziak edo basogintza-ustiategiak– eta laneko segurtasun eta osasunaren kultura eskasa duten kolektiboengana iristeko zailtasunagatik ere.**

**Azken alderdi horri erreparatuko dio, bereziki, Osalanek; horretarako, sektorean jarduten duten enpresaburu, langile eta eragile kolektiboak laneko arriskuen prebentzioari buruz sentsibilizatzeko ahalegina egingo dugu, jakintza helarazita eta prebentziosko kudeaketa ahalbidetuko duten egiturak sortzea sustatuz.**



## JAKINTZAREN SORRERA HEZIKETAREN ETA IKERKETAREN BITARTEZ

Laneko arriskuen prebentzioaren oinarri eta aplikatutako ekintza eta neurrien eraginkortasuna bermatzen duen zutabeetako bat arriskuak ezagutzea da, arriskuek eragiten dituzten kalteak eta arrisku horiek ezabatzeke edo, besterik ezean, murriztu eta kontrolatzeko aukerak ezagutzea.

Laneko osasunaren eta segurtasunaren gaineko jakintza sustatzea da Osalanen lan-ildo garrantzitsuenetako bat, eta azken urteotan baliabide eta ahalegin handiak bideratzen ari gara horretara. Hau da 2014an egindako jardueren laburpena:

### Laneko arriskuen prebentzioari buruzko e-learning prestakuntza

2013an hasi ginen laneko segurtasunari eta osasunari buruzko e-learning prestakuntza eskaintzen, Moodle-ren "open source" plataformaren bitartez. 2014. urtean, Osalaneko langileei tresna horrekin lotutako prestakuntza emateko alde zereginak burutu ditugu, tutoreak hautatu ditugu, eta lehen ikastaroa eta on-line probak diseinatu ditugu. Aurreikuspenaren arabera, 2015. urtean lehen ikastaro hori emango dugu eta bigarren prestakuntza-programa diseinatzen hasiko gara.

### Prebentzioko ordezkarien prestakuntza

2014an aldaketa gertatu da prebentzio arloko ordezkarien prestakuntzako kudeaketan eta Osalanek bere gain hartu du guztiz. EAEko enpresetako edo lantokietako prebentzio-ordezkarien oinarritzko prestakuntza diruz lagunduta eman nahi duten erakunde publiko nahiz pribatuak baimendu ditu Osalanek, eta prestakuntza horrekin lotutako ikastaroak finantzatu ditu.

2014ko ekainaren 30ean<sup>3</sup> ikastaroak baimendu eta diruz laguntzeko deialdia argitaratu zen eta horren testuinguruan 57 zentro baimendu ziren prestakuntza eskaintzeko<sup>4</sup>.



<sup>3</sup> Ebazpena, 2014ko ekainaren 18koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2014 ekitaldirako prebentzioko ordezkarien oinarritzko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren deialdia egiten duena.

<sup>4</sup> EBAZPENA, 2014ko irailaren 17koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2014 ekitaldirako prebentzioko ordezkarien oinarritzko prestakuntza emateko baimenari buruzko ebazpenak argitara emateko dena.



Emaitzak koadro honetan daude:

PREBENTZIOKO ORDEZKARIENTZAKO PRESTAKUNTZA (2014)							
ARAEI BURUZKOA				TEKNIKOA			
LURRALDEAK	IKASTAROAK	IKASLEAK	KOSTUA	IKASTAROAK	IKASLEAK	KOSTUA	GUZTIRA
ARABA	5	79	6.642,00 €	0	0	0,00 €	6.642,00 €
BIZKAIA	17	251	22.194,00 €	12	203	32.184,00 €	54.593,00 €
GIPUZKOA	10	134	12.946,50 €	5	70	13.122,00 €	26.143,50 €
GUZTIRA	32	464	41.782,50 €	17	273	45.306,00 €	87.088,50 €

**Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko alderdi interesgarriari buruzko Jardunaldi Teknikoak antolatzea**

Prestakuntzako eta dibulgazioko ekitaldiak egitea da jakintza eragile interesdunei helarazteko tresnarik eraginkorrenetako bat. Horregatik, Osalanek 16 ekitaldi sustatu ditu laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako gaiari buruz; jarraian zerrendatuko ditugu.



## OSALANek 2014. URTEAN ANTOLATUTAKO JARDUNALDI TEKNIKOAK

Prebentzio-zerbitzuetako osasun-arloko langileentzako prestakuntza-planari buruzko jardunaldia: laneko historia klinikoaren eredu berria (Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Mediku Zientzien Akademiarekin lankidetzan).

2013an Osalanek finantzaturako ikerketa-proiektuak aurkezteko jardunaldia.

Laneko arriskuen prebentzioa, prebentzioko ordezkarietarako eskuliburua aurkezteko jardunaldia.

Lanbide-gaixotasunaren arloko lege-erantzukizunari buruzko jardunaldi teknikoa.

Makineriaren erorketa: makineria berria eta bigarren eskuko makineriari buruzko jardunaldi teknikoa.

Osasunaren zaintzako lege-alderdiei buruzko lehen tailer teoriko-praktikoa eta Moodle plataformaren aurkezpena (Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Mediku Zientzien Akademiarekin batera).

EAEEn 2013an izandako ezbehar-tasari eta lanbide-gaixotasunei buruzko txostena aurkezteko jardunaldia.

Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko OSALANen Udako IV. ikastaroa

Eraikuntza industrialeko obra handietan segurtasuna kudeatzeko jardunbide egokiei buruzko jardunaldi teknikoa.

Jardunaldi teknikoa: «Prebentzio-zerbitzuen osasun-kudeaketaren etorkizuna. Hausnarketak, 843 Errege Dekretua onetsi eta bi urtera»

Osalanen Enpresetan droga-mendetasunen prebentziorako planen ezarpenerako gidaliburuari buruzko jardunaldi teknikoa.

Osasun-langileentzako tailer teoriko-praktikoa: buruko min kronikoa eta lana (Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Mediku Zientzien Akademiarekin batera).

«Generoaren analisia lanaren eta osasunaren eremuan» jardunaldi teknikoa.

Prebentzio-zerbitzuetako osasun-arloko langileentzako bigarren tailer teoriko-praktikoa: osasunaren zaintzaren plangintza (Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Mediku Zientzien Akademiarekin lankidetzan).

OSALANek antolatutako laneko psikosozilogiari buruzko V. jardunaldia.

Pertsona edadetuak lanean: arazo eta ekimenei buruzko jardunaldi teknikoa.

2. eranskinean, egindako ekintzak eta bakoitzaren helburuak zehaztuko ditugu.

Osalanek balantza oso positiboa egiten du berak antolatutako ekitaldiei dagokienez: **2.000 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten**. Aurreikusitako egutegia betetzeaz gain, Jardunaldien kalitate teknikoa ezin ukatuzkoa izan da eta parte-hartzaileek bete zituzten inkestetan jasotako datuetan ere balioespen positiboak bildu ditugu.

Inkesta horietan iradokizun asko jasotzen ditugu, eta jardun-ildo hau hobetzeko oso lagungarri zaizkigu; datozen urteotan lan-ildoak indartzen jarraitzeko asmoa dugu.

### **Prebentzio-zerbitzuetako eta Osakidetzako osasun-langileentzako prestakuntza**

- **Prebentzio Zerbitzuetako osasun arloko langileentzako heziketa-plana, Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Mediku Zientzien Akademiarekin lankidetzan.**

Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Mediku Zientzien Akademiarekin Prebentzio Zerbitzuetako osasun-arloko langileentzat adostutako heziketa-plana 2014ko otsailaren 19an antolatutako jardunaldian aurkeztu ostean, bertan programatutako ekintza guztiak garatu dira eta 2015erako prestakuntza-ibilbidearen aurrerapena ere egin dugu.

Honako prestakuntza-ekintza hauek egin dira:

- Bihotz-biriketako bizkortzeari buruzko ikastaroa.
- Tailer teoriko-praktikoak:
  - 1.-Osasunaren zaintzako lege-alderdiak 3 Lurraldeetan.
  - 2.- Osasunaren zaintzaren planifikazioa.
- Buruko min kronikoak eta lanean duten eraginari buruzko borondatezko prestakuntza-jarduera.

Tailerretako gogobetetze-mailari buruzko inkestetan balioespen oso positiboa atera da; jende askok erantzun du eta erantzun guztiak aztertzen ari gara, ondorioak atera eta hobetzeko puntuak zehazteko.

- **Osakidetzako osasun-langileentzako prestakuntza-plana.**

Arreta Espezializatuko (pneumologoak) lehen langile taldeari egindako prestakuntza-jarduera, laneko gaixotasunaren susmoaren berri emateko prozedurako trebatze-planaren baitan.

### **Barruko mediku egoiliarren (BAME) prestakuntza Lan Medikuntzaren alorrean, Osakidetzarekin berariaz adostutako akordioaren bidez**

EAEko Lan Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko Barruko 7 Mediku Egoiliar (BAME) R4 Osalanek hiru lurraldeetan dituen zentroetan txandakatu dira, erakundeko Laneko Osasun Unitateak eskainitako prestakuntza arautua, espezializatua eta kalitatezkoa jasotzeko.

Irakaskuntza Unitateko, Osakidetzako eta Osasun Saileko arduradunekin izandako bileretan prestakuntza-prozesua hobetzeko lanean ari gara, txandakatzearekin lortu nahi diren helburuak hobeto betetzearren.

### Unibertsitateekin lankidetzaren laneko arriskuen prebentziorako goi-teknikariei prestakuntza emateko

2014. urtean 9.000 €-ko diru-laguntza zuzena eman diogu EHUri, Lan Harremanen Eskolak ematen duen Laneko arriskuen prebentziorako masterra egiteko; diru-laguntzaren xedea kanpoko irakasleak lortzea zen.

Osalanek prestakuntzan inplikazio handiagoa izan dezan lortzeko aukerak aztertzen ari gara, hala nola, Masterreko ikasleek praktikaldia Osalanen egitea berriro ere, hitzarmen baten bitartez. Bestalde, Higienearen espezialitatean Osalanen jarduera praktikoa egiteko aukera aztertzen ari gara.

» 2015rako 13.000 €-ko partida aurreikusitako diru-laguntza horietarako. «

### Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzak

Laguntza-ildo horren bitartez, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan hain ezagunak ez diren alderdiei buruzko ezagutza sustatu nahi du Osalanek, EAEko enpresen prebentziozko kudeaketan aplikatzeko moduan. Horretarako, 500.000 euro ditu guztira: 250.000 euro 2014rako ordain-kreditu gisa, eta 250.000 euro 2015erako konpromiso-kreditu gisa. Aurrekontu horretatik, 100.000 euro erabiliko dira SAFERA europar programarekin lotutako proiektuak finantzatzeko, eta gainerako 400.000 euroak, berriz, Osalanek laneko arriskuen prebentzioaren arloan onartutako ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-proiektuetarako.

2013ko abenduaren 30ean argitaratutako diru-laguntzen deialdiaren ondorioz, 93 proposamen jaso ziren, horietatik 4 SAFERA programaren barruan eta 89 Osalanen zuzeneko

diru-laguntzarako. Behin proiektuak aztertuta, 12 onartu ziren (batek ondoren laguntzari uko egin zion arren) eta 375.390,57 € egikaritu ziren. Hori horrela, SAFERA programan proiektu bat onartu zen eta 50.000 € eman zitzaizkion.

2014ko deialdian diruz lagundutako proiektuak egikaritze-fasean daude eta 2015eko uztailaren 1a arteko epea dute emaitzak aurkezteko. Gaiak askotarikoak dira: 8 laneko segurtasunari buruzkoak dira, 8 industria-higieneari buruzkoak, 11 ergonomiari buruzkoak, 17 psikosozioologiari buruzkoak, 9 osasunaren zaintzari buruzkoak eta 26 bestelako gaii buruzkoak.

» 2015erako diru-laguntzari dagokionez, modu elektronikoan izapidetzeko aukera eskainiko du, berrikuntza moduan. «

### EAEen errepidetako joan-etorrietan gertatzen diren lan-istripuei buruzko azterlanak. 2013ko datuekin eguneratzea

Laneko istripuak zergatik eta nola gertatzen diren jakiteko, ahalik eta informazio gehien bildu nahi izaten du Osalanek; horregatik, laneko ezbehar-tasari buruzko azterlanak egin izan ditu hainbat ikuspegitik begiratuta eta hainbat aldagairen arabera.

Horietako batean, EAEen 2007. urteaz geroztik izan diren lan-arloko trafikoko-istripuen bilakaera aztertu da, eta urtero eguneratzen da; beraz, lan-arloko trafikoko-istripuek gure Autonomia Erkidegoan duten joeraren panoramika bat izan dezakegu, prebentziorako ekintzak identifikatzea ahalbidetzen duela.

» Laneko segurtasun eta osasunari buruzko jakintza sortzeko arloan, Osalanek egindako jardueretan lortutako emaitzen balantze oso positiboa egiten dugu, eta datozen urteotan lan-ildo hori indartzeko lanean jarraituko dugu. «

---



## OSASUNAREN ZAINZA

Langileen Osasunaren Zaintzaren esparruan, Osalanek asmo handiko helburuak jarri dizkio bere buruari eta, horiek betetzeko, proiektu handiak garatzen ari da, betiere osasunaren zaintzak prebentzioko eginkizuna beteko duela bermatzera bideratuta.

Horri horrela izanik, osasunaren zaintza norberak dituen arriskuen araberakoa izan dadin lortzeko jardunak sustatu dira, bai eta kalitatea eta zorrotasun zientifikoa ziurtatuko duten irizpideei eta metodologiari jarraiki burutuko dela ere.

Lan-ildo horretan Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin batera jardun dugu, eta laneko medikuntzaren prebentzio-arloan inplikaturako eragileen lankidetzaren ere lortu nahi izan da.

Aurreko ekitaldietan bezala, amiantoaren eraginpean egondako langileen arazoari bereziki erreparatu diogu, eta eraginpeko langile horientzat tratamendurik egokiena sustatzen saiatu gara, dela okupazio osteko osasunaren zaintza eskainita, dela agente horren eraginpean egotearekin agian lotura duten gaixotasun profesionalen kasuak aztertzearen eta aholkularitzaren bitartez.

Hona hemen osasunaren zaintzako jardueraren nagusiak:

### Enpresetan droga-mendetasunen prebentziarako planen ezarpenerako gidaliburuak

Hainbat urtetako lanaren emaitza da gidaliburu hori, eta Osasun Sailaren eta gizarte-eragileen laguntzarekin egin dugu; argitaratu ostean, urrian izandako jardunaldi tekniko batean aurkeztu genuen. Dokumentu horren bidez, mendekotasunek eragindako arriskuak eta mendekotasun-ohiturak prebenitzearen garrantzia nabarmendu nahi dira. Orobat, asmoa da enpresetan mendekotasunei aurrea hartzeko planak errazago ezarri ahal izatea eta tarteko

eragile guztiek partekatutako erantzukizunak argitzen laguntzea.

» Datozen urteetan, Gidaliburuak enpresetan izan duen ezarpenaren eta lortutako emaitzen jarraipena egingo dugu. «

### Laneko historia klinikoa, langile-denboran eta geroago ere langileak lagungarri izango duena

2014. urtean, urte anitzeko proiektu horrekin aurrera jarraitu dugu. Aldez aurretik Prebentzio Zerbitzuei kontsulta eginda, Laneko Historia Klinikoa osatzeko eskuliburua prestatu eta argitaratu da. Halaber, Laneko Historia Klinikoa Prebentzio Zerbitzuen artean elkartrukatzeko proposamen informatiko bat aztertzen ari gara. Azkenik, Aurrezaintzako zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituzten jardueren sanitarioak arautzen dituen 306/1999 Dekretua ordeztuko duen arauaren zirriborroa idatzi da, eta langilearen Laneko Historia Klinikoa aipatzen da artikuluetan.

» 2015ean, laneko arriskuen prebentzioko osasun-jardueraren antolatze arau berri hori izapidetuko da, eta Eredu berria ezartzen hasia sustatuko da. «

### Osasuna zaintzeko berariazko protokoloa: sudur-barrunbetako eta sinu paranasaletako adenokartzinoma egur-hautsaren esposiziopean izaten diren langileetan

Osasun Sistema Nazionalaren Laneko Osasunaren Taldeak berrikusi du egindako protokoloa. Protokolo hori aintzat hartuta, Osalanek lau protokolo berrikusi ditu jada Frogetan Oinarritutako Medikuntzaren metodologiari jarraiki, laneko arrisku espezifikoen eraginpean dauden langileen osasunaren berariazko zaintzan jarraitu beharreko prozeduretan ahalik eta kalitate zientifiko handiena izatearren.

Protokoloa 2015eko otsailaren 17an Bilbon antolatutako jardunaldi teknikoan argitaratu eta ezagutarazi zen.

### Osasun kolektiboa zaintzeko oinarritzko ildo eta irizpideak

Oinarritzko jarraibideak adostu eta gidaliburuaren dokumentuaren gidoia finkatu ostean, idazketa-taldeak zirriborroa bukatu du eta 2015ean berrikusi egingo dugu, bai barruan, bai kanpoko adituek. Berrikuspen horren emaitzak kontuan izanik, behin betiko dokumentua landuko da, argitaratu eta hedatzeko.



### Marmol-lantegietan silize-hautsa arnasten duten langileen osasun-zaintzaren kalitatearen ebaluazioa

EAEko marmol-lantegietan silize hautsa arnasten duten langileei aplikatutako osasunaren zaintzaren kalitatea aztertzearen, 2013an kanpaina bati ekin genion eta horretan jarraitzen dugu.

Guztira 469 langileren osasunaren zaintza gauzatzen duten Kanpoko 59 Prebentzio Zerbitzuetako osasun-zerbitzuetan jardun dugu; datuak aztertu ostean, azken txostena egin dugu eta berariaz zaindu beharreko parametroak zeintzuk diren zehaztu ahal izango dugu, dela ez-betetzeak haute-man direlako, dela garrantzitsutzat jotzen direlako.

» Ildo horri dagokionez, 2015. urtean, kanpaina ebaluatu ditugun Prebentzio Zerbitzuen jardunaren jarraipena egingo dugu, maiztasunaren eta irakurketa erradiologikoaren betebeharrak eta hautemandako asalduretan oinarrituta hartutako erabakiak bete ote dituzten ikusteko. «

### Lanean amiantoaren eraginpean egondako langileen arazoarekin lotutako jardunak

Dela gaur egun, dela iraganean lanean amiantoaren eraginpean egotearekin eta egoera horrek langileen osasunean dituen ondorioekin lotutako jardunak Osalanen indargune izan dira azken urteotan. Esparru horretan askotariko ekintzak garatzen ditugu, minbizia eragiten duen agente horren eraginpean egonak litezkeen langileen kasu mota guztiei erantzuteko.

Horrela, bada, alde batetik, amiantoaren eraginpean egoteak eragindako gaixotasunen ikerketa egin da; iraganean amiantoaren eraginpean egonak litezkeen langileen okupazio osteko edo langile-bizitza ondorengo osasunaren zaintza kudeatzen da; beste administrazio eta erakunde batzuekin batera eraginpeko langileen arreta hobetzeko lan egiten ari gara; laguntza teknikoa eskaintzen diogu Laneko Agintaritzari amiantoa duten materialak kentzeko jarduerak baimentzeko; eta Udaletako teknikariei gaiarekin lotutako aholkularitza eta prestakuntza ematen diegu.

Orain arte aipatutako jardueraz gain, beste alde batetik, honako hauek ere nabarmendu nahi genituzke:

Amiantoaren eraginpean egoteak eragindako **gaixotasunen** ikerketa.

Iraganean amiantoaren eraginpean egon litezkeen langileei diagnostikatutako gaixotasunen **73 kasu** ikertu dira guztira. Horietatik 14 kasu Arabakoak dira, 31 Bizkaikoak eta 28 Gipuzkoak.

Amiantoaren eraginpean egonak litezkeen **langileen zerrenda, langile-bizitzaren ondorengo osasun-zaintzaren** ondorioetarako.

EAEan amiantoaren eraginpean egonak litezkeen langileen zerrenda osatzeko erantzukizuna Osalani dagokio, kolektibo horri langile-bizitzaren ondorengo osasun-zaintza eskaintzearen. 2014. urtean, **352** lagun sartu dira zerrenda horretan, honela banatuta:

- Jardunean ari diren pertsonak: ..... 206
- Langile-bizitza amaitu dutenak ..... 146

Langile-bizitza ondorengo zaintzaren **143** eskaera izapidetu ditugu; horietatik:

- Izapidetan: ..... 26
- Osakidetzaren zaintzapean: ..... 72
- Beste autonomia-erkidego batean  
zaintzapean: ..... -
- Ez dute onartu: ..... 42
- Helbide ezezaguna: ..... 3

### Amiantoari buruzko lantaldeetan parte hartzea.

Osalan Laneko segurtasun eta osasunerako Batzorde Nazionaleko amiantoaren lantaldeko kide da, eta gaien eskumena duten administrazio eta erakunde guztiekin batera amiantoaren arazoaren tratamendu hobea lortzeko lan egiten dugu.

Gainera, gaiari buruzko beste foro batzuetan ere parte hartzen du gure erakundeak; hala nola, AENORren AEN/CTN 171/SC 03/GT 07 Amianto lantaldean, eta Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren eta autonomia-erkidegoen arteko amiantoari buruzko Batzorde Tekniko Mistoaren lantaldean.



Amiantoarekin lan egin duten langileen **lan egin ondoko osasun-ikuskaritzako praktika klinikorako** gidaliburua.

Ekintza hori garatzeko, Arnasketako patologien Euskadiko eta Nafarroako Elkartean (SVNPAR-ENPE) sartutako Osakidetzako pneumologoekin eta Osalaneko Laneko Osasunaren Unitatearekin lantaldea osatu da.



Prozedura osoa jasoko duen testua lantzen ari dira: eskaera, bertaratze-prozesua eta horren amaiera, datuak LOUra bidalita.

» 2015ean lan horri eutsiko diogu eta zirriborroa osatu, berrikusi, onartu eta argitaratzea eta zabalkundea kudeatu nahi genituzke. «

Zenbait lan-ildotan guk nahi baino gutxiago aurreratu dugu; esate baterako, **lanak eragindako minbiziaren zaintza epidemiologikoan, hein handi batean, zaintza hori ezarri behar zuten langileak atzerapenarekin hasi zirelako lanean, 2014ko azaroaren amaieran sartu baitzen mediku berria.**

Egoera aztertu dugu eta zaintza hori egiteko estrategia ere diseinatu dugu, baina jarduna ez dugu abiarazi oraindik. Datozen urteotan, Osalanen ustez funtsezkoa den lan-ildo hori garatzeko oinarriak finkatu ditugu; izan ere, datozen urteotan, aurreikuspenaren arabera, agian lanak eragindako minbizi-kasuek gora egingo dute eta egoera horri aurrea hartu behar diogu.

Osasunaren zaintzaren arlo horretan egindako lanaren balantzea positiboa da, ez baitugu ahaztu behar Osalanek, alde batetik, planifikatutako jardura eta, bestetik, iazko udaberrian **Arraizeko (Bizkaia) Tratamendu Mekaniko Biologikoko plantan izandako Q sukarraren agerraldiaren** ondoriozko alerta epidemiologikoari eman beharreko erantzuna uztartu behar izan dituela.



Planta horretako langileen artean patologia hori hautemateak alarma sozial nabarmena eragin zuen, eta Osalanek hainbat jardun abiarazi behar izan zituen arazoari aurre egiteko eta etorkizunean berriro horrelakorik gerta ez dadin. Baliabide ugari bideratu behar izan ziren ekintza horietara, batik bat, gure erakundearen Laneko Osasunaren Unitatearen baliabideei dagokienez; horrenbestez, aurreikusita zeuden beste ekimen batzuk atzeratu egin behar izan ditugu.

## ARRISKU ERGONOMIKOEN ETA PSIKOSOZIALEN PREBENTZIOA

2014. urtean, aurreko Planetan hasitako lan-ildo hori finkatu egin da; arrisku ergonomiko eta psikosozialen tratamendua du xede, Osalaneke lantokietan izan duen esperientziak agerian utzi baitu lan-ildo hori ezinbestekoa dela, baina hala ere ez enpresek, ez prebentzio-erakundeek ez dituzte behar beste kudeatzen arrisku horiek.

Arlo horretan honako ekintza hauek gauzatu dira:

### Arrisku ergonomikoak

Ergonomiaren arloan bideari ekin diogu, eta lantalde espezifiko bat eratu dugu hautemandako premiei erantzuteko jardunak diseinatu eta garatzeko.

EAEko **arrisku ergonomikoen egoerari** buruzko azterketa, batez ere gihar eta hezurretako nahasmenduei dagokienez; eta jarduteko proposamenak.

Ergonomiaren arloan eratutako lantaldea EAEn arrisku ergonomikoaren egoerari buruzko diagnosis egiten ari da, eta beharrak identifikatzeko eta jarduera-proposamenak egiteko lanean ari da. Jarduera horiei 2015ean ekingo zaie.

Taldearen helburua landa-mailan jardutea da, eta 2015eko hasieran martxan jarriko den Ergozaintza II proiektua indartuko da.

Gihar eta hezurretako nahasmenduei dagokienez, 2014ko Udako Ikastaroetan egoeraren ikuspegi orokorra aurkeztu zen, eta nahasmendu horiekin lotura duten EAEko lanbidegaixotasunen eta laneko istripuen berri eman zuten. Ponentzia hori webgunearen bitartez zabaldu da.

### Erakundeen arteko lankidetzaren eremuan

Gaia ongi ezagutzen duten izen handiko erakundeekin batera jardun dugu proiektuak garatzeko; zehazki:

- **Ergonomia Aplikatuko Zentroa - CENEA:** Lankidetzaren **Ergozaintza proiektuan**, adinekoen egoitzetako langileen arrisku ergonomikoei eta gihar eta hezurretako nahasmenduei erreparatuta.
- **UMANA:** **Inguraketa-arrantzako arrantzalearen ebaluazio ergonomikoa** lana Osalaneke webgunearan argitaratu da.

### ErgoZAINZTA proiektua - Geriatria zentroetarako ergonomia

**Ergozaintza I** proiektuaren lehen fasea Osalaneke aurreko Kudeaketa Planen esparruan garatu zen, eta Osalaneke webgunearan argitaratuta dago.

**Ergozaintza II** bigarren fasea 2015. eta 2016. urteetan gauzatu da Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko Egoitza publikoetan.

EAEko egoitza-zentro publikoetan pertsonak eskuz mobilizatzearen ondorioz sortzen diren gihar eta hezurretako nahasmenduen arrisku-faktoreak ezaugarritzea eta baliogestea da helburua, kontrol-kasuen ikerketa epidemiologiko multizentriko baten bitartez; eta, jarraian, Hobetzeko Plana egitea da asmoa, esku-hartzeko proposamen estrategikoak zehaztearren.

## Arrisku psikosozialak

Arrisku psikosozialen eremuan, Osalanek lan handia egin du azken urteotan eta emaitzak ikusteko modukoak eta prebentzio-eragin handikoak izan dira.

### Baterako lana **prebentzioko ordezkariekin**

Sindikatuekin batera lan egiteko honako tailer hauek antolatu dira:

- Azaroak 26, Gasteizen, prebentzioko 26 ordezkari bertaratu dira.
- Abenduak 2, Barakaldon, prebentzioko 22 ordezkari bertaratu dira.
- Abenduak 9, Donostian, prebentzioko 37 ordezkari bertaratu dira.

Tailerretan ekarpen interesgarriak izan dira, batik bat, enpresetan prebentzio-ordezkariaren figura indartzearekin lotuta, presentzia eta parte-hartze handiagoa izan dezan; bestalde, maila guztietan informazioaren eta prestakuntzaren premiarekin lotutako ekarpenak ere izan dira, arrisku psikosozialen aurrean sentsibilizazioa eta kontzientziazioa sustatzearen.

### Laneko psikosozilogiaren arloan, enpresaburuentzako **aholkularitza-kanpaina**

“Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak adineko eta ezgaituentzat” jardueran aritzen diren eta 5 langile edo gehiago dituzten enpresetara bisitaldiak egiteko kanpaina.

Guztira, **119 enpresatan** jardun dugu: 28 Araban, 42 Gipuzkoan eta 49 Bizkaian; ebaluazio psikosoziala egiteko prozedurak aztertu ditugu eta horiei buruzko aholkularitza eskaini dugu.

Kanpainaren ondorioak Osalaneko psikosozilogiari buruzko jardunaldietan aurkeztu ziren.

### Arrisku psikosozialen prebentzioaren arloko **jardunbide egokiei** buruzko materiala eta prestakuntza-ekintzak

- Bideo bat egin da, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, eta bertan adierazi dute arrisku psikosozialak zer diren, horiek prebenitzeko tresnak zein diren eta enpresetan gatazka sortuz gero eman beharreko urratsak zeintzuk diren.

Azaroaren 21eko psikosozilogiari buruzko jardunaldietan aurkeztu zen; gaur egun Youtuben jarrita dago eta harrera ona izaten ari da.

- «Prebentzioko ordezkariarentzako arrisku psikosozialetako gida» landu eta argitaratu da.
- «Enpresetan droga-mendetasunen prebentziorako planen ezarpenerako gidaliburua» berrikusi da.

Adikzioei buruzko jardunaldietan «Adikzioetan eragiten duten laneko faktoreak» hitzaldia landu eta aurkeztu da.

- Hainbat hitzaldi eta ponentzia egin dira hainbat erakunde eta organismorekin lankidetzan: Osarten, Ertzaintza, Osakidetza eta Gasnalsa.

Osalanen **webgunean Arrisku Psikosozialen** atari espezifikoa.

Osalanen webgunearen barruan atal espezifiko bat prestatzen ari gara arrisku psikosozialei buruzko edukiak eskuragarriago egon daitezen; horretarako, urte osoan eduki estatikoak eta dinamikoak dituzten orrien aurkibide bat landuko dugu. Subhome-aren lehen maketa egina dagoenez, 2015ean argitaratuko dela aurreikusten da.

OSALANek antolatutako **laneko psikosozologiari buruzko jardunaldien** V. edizioa

Jardunaldien V. edizioaren izenburua "Arrisku psikosozialen prebentzio integral eta integratuaren alde" izan zen; 2014ko azaroaren 21ean Bilboko Euskalduna jauregian izan zen jardunaldia, eta **300 pertsona** baino gehiago bildu ziren, edukiera bete arte.

Besteak beste, gure inguruko hiru enpresaren esperientzia aurkeztu zen arrisku psikosozialei dagokienez. Era berean, Osalanek arrisku psikosozialen arloan enpresaburuen artean jardunbide egokiak sustatzeko egindako kanpainaren emaitzak aurkeztu ziren, bai eta Laneko Psikosozologiaren kudeaketa-tresnak ere; zehazki, prebentzio-ordezkarriaren gidaliburua, Laneko jazarpena gertatzen denerako jokabideen protokoloa lantzeko gidaliburua, eta arrisku psikosozialen eraginpean dauden langileen osasuna zaintzeko gomendioen gidaliburua.

Gizarte-eragileek ere parte hartu zuten, eta enpresetako arrisku psikosozialen prebentzioan hobetu beharreko eremuei buruzko iritzia eman zuten.

Arrisku psikosozialen eraginpean dauden langileen **osasuna zaintzeko** gidaliburua

Arrisku psikosozialeko faktoreen eraginpean dauden langileen osasunaren zaintza espezifikorako gomendioen Gidaliburua Laneko Psikosozologiari buruzko Jardunaldian aurkeztu zen, eta dokumentua pen-drive batean banatzeaz gain, Osalanen webgunean ere argitaratu zen.

**Lan-denborei** eta **txandei** eta laneko arrisku psikosozial gisa horiek duten inpaktuari buruzko azterketarako oinarritzko printzipioak.

2014. urtean bibliografia bildu eta dokumentuak aztertu dituzte, azterketa 2015ean egite aldera.

» Arrisku ergonomikoak eta psikosozialak Osalanen lehentasun izango dira datozen urteetan ere, alde batetik, gero eta prebalentzia handiagoa dutelako eta, bestetik, enpresa eta prebentzio-enpresa askotan ez dituztelako sakon tratatzen. Horrela, bada, gure erakundearen etorkizuneko kudeaketa Planetan lan-ildo izaten jarraituko dute. «

# 2.10

## INFORMAZIO SISTEMAK

Informazioa ezinbesteko tresna da, bai laneko arriskuen prebentzioaren arloan dauden arazo eta premiak identifikatzeko –Osalanek horiei aurre egiteko jardun behar duen heinean–, bai Osalanen ekimeneen emaitza eta EAEko langileen segurtasuna eta osasuna hobetzen izan duten eragina ebaluatzeko.

Horregatik, Osalanen Kudeaketa Planetan zeharkako lan-ildo bat dago, erakundeak baliatzen duen eta herritarrei eskaintzen dien informazioaren kalitatea hobetzeko, betiere prebentzio-lanean lagunduko dieten datuak eskaintzearren eragileei.

Hona hemen arlo horretan garatutako jarduera, laburbilduta:

### OSALANen informazio-sistema integratua

Antzemandako behar berrien arabera, aplikagarriak txertatzen eta dagoeneko diseinatutakoak aldatzen jarraitu dute. Horretarako, EJI Erekin batera arazoak konpontzeko lanean ari gara, eta Lan Zuzendaritzarekin batera lantokien errolda eguneratzen.

Osasun-arloko aplikazioak garatuta eta 2015ean martxan hasteko prest daude; prestakuntza eman da eta erabiltzailearentzako eskuliburua ere idatzi da.

### EAEEn diharduten prebentzio-zerbitzuei dagozkien osasun-zerbitzuen fitxategia

EAEEn diharduten prebentzio-zerbitzuei dagozkien osasun-datuak biltzen dituen fitxategia ezartzen jarraitu dugu 2012. urtetik garatzen ari garen urte anitzeko proiektuaren barruan; erakunde horien osasun-baimenak modu telematikoa izapidetzeko aukera ezartzen denean amaituko da proiektua.

Aplikazioa oso aurreratuta dago eta EJI Erekin lanean ari gara informazioa arazteko eta datuak kargatzeko; 2015eko erdialdean martxan jartzea aurreikusi da.

### Prebentzio-zerbitzuen gutxieneko datu-multzoan oinarritutako laneko osasunari buruzko informazio-sistema

EAEko langileen osasun-egoerari eta arriskuen eraginpeko egoerari, bilakaerari eta joerei buruzko informazioa denbora errealean eskuratzera bideratutako proiektu handi horretan aurrera egin dugu.

2014. urtean aplikazioa testatzen jarraitu dugu eta egindako proba pilotuan oinarrituta, arazoak identifikatu eta araztu dira. Sistemaren erabiltzailearen eskuliburua egin da eta esposizioen adierazpenerako jasotako eragileei buruzko araudiaren eguneraketak jasotzeko zain daude.

» 2015erako helburua zera da, sistema arautzen duen araua izapidetu eta onartzea, ezarri aurretik. «

### Gaixotasun profesionalaren susmoa jakinarazteko sistema

EAEko Prebentzio Zerbitzuek eta osasun-zerbitzuek lanarekin lotura izan dezaketen gaixotasunak jakinarazteko sistema ezartzean datza proiektua, eta Osalan lan handia egiten ari da, 2015. urtean erabat operatibo egongo delakoan.

Izan ere, sistemaren euskarri izango den aplikazio informatikoa eraikia eta produkzioan dago, eta Ikuskaritza Medikoko eta Osalaneko Laneko Osasunaren Unitateko erabiltzaileei prestakuntza ematea baino ez da falta.

- **Izapidetutako kasuak:**

Taula honetan, 2014. urtean jasotako gaixotasun profesionalaren susmoaren jakinarazpenak zehaztuko ditugu, jakinarazpenaren jatorriaren eta Lurraldearen arabera banakatuta.

### GAIXOTASUN PROFESIONALAREN SUSMOAREN JAKINARAZPENAK, LURRALDEEN ETA JATORRIAREN ARABERA

Jatorria				
	2014. urtea		2013. urtea	
	Prebentzio-zerbitzuak	Osakidetza /beste batzuk	Prebentzio-zerbitzuak	Osakidetza, ikuskapen medikoa
<b>Araba</b>	149	18 / 2	172	15
<b>Bizkaia</b>	294	28	224	39
<b>Gipuzkoa</b>	199	19	321	31
<b>EAE, GUZTIRA</b>	<b>642</b>	<b>65 / 2</b>	<b>717</b>	<b>85</b>

OHARRA: Zifra horiek lortzen dira lehen patologia hori gaixotasun profesional gisa aitortu gabe eta horrek emango lukeen babes eskuratu gabe zeuden kasuak aintzat hartuta.


Taulan ikus daitekeenez, Gaixotasun profesionalaren susmoaren **709 jakinarazpen** jaso dira guztira; 169 Araban, 218 Gipuzkoan eta 322 Bizkaian. Horietatik % 90 Prebentzio Zerbitzuetako osasun-erloto langileek eginak dira, % 9 Osakidetzatik iritsi dira eta % 1 beste nonbaitetik.

571 kasu izapidetu dira guztira baina horietatik 55 kasu 2013an egindako jakinarazpenei dagozkie.


EAEEn orain arte egin diren gaixotasun profesionalen susmoaren jakinarazpen gehienak prebentzio-zerbitzuetaoak dira. Jakinarazpenen % 9 baino ez datoz osasun-zerbitzuetaatik. Datu hori ez dator bat 1299/2006 Errege Dekretuaren helburuarekin; hain zuzen ere, gaixotasun profesionalen azpideklarazioa zuzentzeko eta agian osasun-sistema publikoan artatzen ari diren baina lanak eragindakoak diren gaixotasunak ikusgai bihurtzeko helburuarekin.

Ildo beretik, EAEko osasun-sistemako medikuekin beste sentsibilizazio-kanpaina bat egin beharko litzatekeela proposatu du EAEko susmoak jakinarazteko sistemaren Jarraipen Batzordeak, prestakuntza-saioen plan baten bitartez.


Prebentzio-zerbitzuetaatik iritsitako jakinarazpenen bilakaeran ere murrizketa nabarmena gertatu da azken bi urteotan. Prebentzio-zerbitzuetao osasun-arloko langileen kasuan ere sentsibilizazioko eta prestakuntzako premia hori badagoela proposatu da.



### Osakidetzak egindako gaixotasun profesionalen susmoaren jakinarazpenak lurraldeka antolatuta



### Osakidetzatik eratorritako susmoen diagnostika





## EAEko Laneko Segurtasun eta Osasunaren adierazleak

EAEko laneko arriskuen prebentzioa zer egoeratan dagoen zehazteko Adierazleen proposamena lantzen ari gara, 2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia berriaren jarraipena eta kontrola egiteko prozesuaren barruan, Osalanek eginkizun nagusia betetzen baitu Estrategia horretan, Batzorde Teknikoaren arduradun den aldetik.

Adierazle horien bitartez, jardunen egoeraren eta emaitzen berri izango dugu, eta laneko segurtasunean eta osasunean erabakigarriak diren aldagai nagusien bilakaera zer nolakoa den jakin ahal izango dugu, horren arabera jokatzeko aukera izanik.

## EAEko Gaixotasun Profesionalen eta Laneko istripuen urteko txostenak

Urtero bezala, EAEn 2014. urtean izan diren laneko istripuei eta gaixotasun profesionaleri buruzko txostenak egin ditugu, eta Bilbon ekainaren 11n izan zen Jardunaldian ezagutarazi genuen; Osalanen webgunean ere argitaratuta dago.

**Informazio-sisteman arloan asko aurreratu dugu, zalantzarik gabe, baina aurrerabidea nahi baino mantoago doa. Egia da Osalan hirugarrenen jardunen baldintzapean dagoela esparru horretan, eta gerta liteke hirugarren horien lehentasunak eta egutegiak gure erakundearen lehentasun eta egutegiekin bat ez etortzea.**

Osalanen lanari dagokionez, informazioa biltzeko, aztertzeko eta ustiatzeko sistema eta prozesuak etengabe hobetzen ari direla nabarmena da, eta hobekuntza hori agerian geratzen da erakundeak hainbat kanal eta euskarriren bitartez herritarren esku jartzen dituen txosten eta datuetan.



## 2.11

## PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA

Osalanen jakin badakigu pertsonak direla erakundearen aktibo garrantzitsuena; pertsonak gauzatzen dituzte proiektu eta ekintzak, beren inplikazio eta jardun profesionalarekin.

Horregatik, 2014rako Kudeaketa Planean erakundeak langileak gaitzeko eta lanean hobeto jarduteko beharrezkoak dituzten tresnak eskaintzeko lan-ildo bat sartu genuen. Jardun-ildo horren xedea Osalanek ematen dituen zerbitzuak hobetzea da, eta hortaz, zerbitzu horien euskarri diren prozesuak aztertzea eta hobetzea da ildoaren ardatz.

Jarraian, egindako ekintzak zehaztuko ditugu:

### Dokumentuak kudeatzea eta artxibatzea

Osalanen artxiboa berrantolatzeko proiektuak hainbat urte darama abian; urte horietan, Osalanen jardueran sortutako dokumentu-serieak identifikatu dira, bai eta ezaugarriak zehazten hasi ere.

Aldi berean, erakundearen Lurralde Zentroetako artxiboa ere berrantolatzen ari gara; 2014. urtean Bizkaiko artxiboaren txanda izan da, Gipuzkoakoa amaitu ostean. 2015. urtean Arabako artxiboa berrantolatuko dugu.

Helburu da erakundearen dokumentuak errazago eskuratzeko eta baldintza egokietan gordeko direla ziurtatzea, ahal den heinean, euskarri digitalak erabil daitezzen sustatuta.

### Barne Prestakuntzako Plana

Osalaneko langileen prestakuntzari funtsezko iritzi diogu, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan Europa osoko erreferente izan nahi badugu, behintzat; izan ere, gai askotan jada bagara erreferente.

Ildo beretik, azken urteotan ahalegin handia egiten ari gara erakundea osatzen duten pertsonak gaitzeko, batik bat, jakintza-arlo berrietan eta hasierako fasean dauden jakintza-arloetan; era berean, plantillan berriki sartutako langileei ere prestakuntza ematen ari gara.

Izen handiko erakundeek ematen dituzten ikastaro eta mintegietara joateaz gain, Osalanek bertako langileen jakintza baliatzeko ekimena abiarazi du: jakintza hori barneko prestakuntza-saioen bitartez gainerako lankideei transmititzen diete, eta askotariko edukiak (gai teknikoak, klinikoak, antolaketakoak eta abar) lantzen dituzte. Jarduera hori oso positiboa izaten ari da, erakundearen kapital intelektuala areagotzeaz gain, jardunak eta irizpideak homogeneizatzeko ere baliagarria baita.

### Aurrerabide proiektua

Osalanek Aurrerabide proiektuaren Egiten Ikasi fase pilotuan parte hartu du –proiektuaren bitartez, kudeaketa publiko aurreratuaren eredia Eusko Jaurlaritza osoan txertatzen ari da– eta, espero genuen bezala, parte-hartze hori aukera ezin hobea izan da erakundearen komunikazioan eta kudeaketan hobekuntzak ezartzeko.

Prestakuntza praktikoko 10 saio burutu ditugu proiektuaren barruan; saio horietan, Osalanen jardun-ildoetako arduradunek parte hartu dute, Zuzendaritzarekin batera. Saio horietan hainbat alderdi estrategiko eta operatibo landu dira, eta erakundearen kudeaketa erraztuko duten

eta zerbitzuak hobetzeko lagungarri izango diren tresnak garatu dira.

2014rako Kudeaketa Planean pertsonengana zuzendutako zenbait ekintza berriz bideratu dira eta AURRERABIDE proiektuaren garapenean txertatu; jarraian azalduko dugu proiektuaren emaitza.

**OSALANen jasotako laneko arriskuen prebentzioari buruzko kontsultei** erantzutea

Osalanek eskaintzen duen zerbitzu garrantzitsuenetako bat aholkularitza da, betiere bere eskumenen eremuan; beraz, prozesu hori aztertzeko eta berriz diseinatzeko fasean daudenetako bat da, erakundearen jasotzen ditugun kontsultei hobeto erantzutearren.

Zenbait neurri hartu dira jada; hala nola, idazki bidezko kontsulten 2 postontziak bateratzea eta datu-base batean deskargatzea; 2015ean ere horretan jarraituko dugu.

Osalanek ekitaldi honetan artatu dituen kontsulen bolumenari dagokionez, erakundearen Lurralde Zentroetan telefono bidez eta bertatik bertara egindako kontsultez gain, web-postontzien –Osalanen beraren postontzia, nahiz euskadi.net atariko postontzia orokorra– bidez ere erantzun diegu honako kontsulta hauei:

WEBGUNEA KONTSULTAK	WEBGUNEA OSALAN		SAILAREN POSTONTZIA	
	2014	2013	2014	2013
Jasotakoak	155	121	344	292
Erantzundakoak	155	116	335	286
Ebatziak	155	116	335	286
Ebatzi gabeak	-	-	-	-
Birbideratuak	-	5	9	6
<b>Erantzuteko batez besteko denbora</b>	<b>4 egun</b>	4 egun	<b>3 egun eta erdi</b>	3 egun eta erdi

## Kanpainetarako eta proiektuetarako **prozedurak**

**AURRERABIDE** proiektuaren esparruan aurreikusita dago Osalanen prozesuak identifikatzea eta berriz diseinatzea; horri guztiari esker, lanak egiteko beharrezkoak diren prozedura, argibide eta txantiloak finkatu ahal izango dira. 2015ean tresna horiek diseinatuko ditugu, prozesuak dokumentatu ahala.

Nolanahi ere, lehendik dauden prozedurak eta ezinbestekotzat jotakoak identifikatzeko alde aurreko lana egina dugu jada, eta lehendik dauden horiek berrikusi egingo ditugu, ezinbestekotzat jotakoen aurretiazko diseinua egitearekin batera.

## Barne-komunikazioa

**AURRERABIDE** proiektuan landutako alderdi garrantzitsuenetako bat barne-komunikazioa da; Osalanen hobetzeko aukerak identifikatu dira arlo horretan.

**Zuzendaritzaren ustez prozesu hori estrategikoa da** eta Egiten Ikasi proiektuaren 2. fasean horri ekingo diogu; 2015. urte osoan garatuko da 2. fasea, eta erakundearen barne-komunikazioko plana diseinatzea eta gerora ezartzea izango du xede.

**Gaur egun, Osalanek badu barne-komunikaziorako tresnarik: informazio-plataforma eta telebista-kate korporatibo bat; egunero-egunero, eduki interesgarriak eskaintzen zaizkie langile guztiei horien bitartez, eta norberaren ordenagailutik, albisteak eskuratzeko aukera izaten dute, laneko arriskuen prebentziari buruz, erakundearen barne-gaiei buruz, argitalpenei buruz, Osalanek parte hartzen duen ekitaldiei buruz...**

**Barne-komunikaziorako plataformaren edukietako bat –“Gaurkotasan Albisteak / Actualidad Informativa”– kanpoko jendearekin ere partekatzen da web-orriaren eta sare sozialen bitartez, laneko arriskuen prebentziari buruzko prentsako azken berriak edo bestelako informazio tekniko edo zientifikoa ezagutarazten baita.**



## OSALANen WEBGUNEAREN GAURKOTASUN ALBISTEAK/ACTUALIDAD INFORMATIVA ATALAK IZAN DITUEN BISITALDIEN KOPURUA - 2014. URTEA

Bisitak, guztira	OSALANetik kanpoko jendearen bisitak	OSALANeko jendearen bisitak
8.745	1.531	7.214

### Osalanen zerbitzuen karta

AURRERABIDE proiektuaren testuinguruan Osalanen zerbitzu-katalogoa berrikusi eta eguneratu da eta, lehen esandakoari jarraiki, 2015ean zerbitzu horietarako euskarri-prozesuak dokumentatuko dira, -besteak beste- errendimendu-adierazleak finkatuta, erakundearen zerbitzu-karta 2016rako prestatzeko aurreikuspenarekin.

### Aurrekontuen kontrola

Eusko Jaurlaritzak gardentasun-konpromisoa eta baliabide publikoak arduraz erabiltzeko konpromisoa hartu zituen X. Legealdian, eta Osalanek hasiera-hasieratik egin ditu bere konpromiso horiek; horretarako, 2013az geroztik aurrekontuaren gauzatzearen jarraipena egiten da aldizka.

Dagozkion ordainketak eginda, 2014ko ekitaldia aurrekontuaren % 74,87 egikarituta itxi da, hau da, betebeharren 10.433.121 € metatuta guztira.

### Hitzarmenak berrantolatzea

2014ko irailean indarrean dauden eta ez dauden hitzarmenak identifikatu ditugu, eta 30 hitzarmen indarrean daudela ikusi dugu.

Indarrean dauden horien artetik, zenbait hitzarmenen indarraldia urtebetekoa da, diru-laguntza izendun bati edo ekintza espezifikoei atxikita daudelako; beraz, urtero zehaztu behar dira. Halaber, beste zenbait hitzarmen gaur egun indarrean ez dauden arren, aztertu egingo ditugu berriz ezartzeari begira.

## 2.12

## OSALANEN ERAKUNDE JARDUERA

Jarraian, Osalanek erakundea sortzeko legean eta egitura eta funtzionamendua ezartzen duen erregelamenduan esleitutako funtzioak betetzeko garatzen dituen jarduerak deskribatuko ditugu.

**Laguntza teknikoa: Laneko eta Osasuneko Agintaritzei eta Agintaritza Judizialari, bai eta Lan Ikuskaritzari eta erakunde, enpresa, prebentzio-erakunde eta langileei, oro har, ere**

Osalanek hainbat eragilerengandik jasotako aholkularitza eta laguntza teknikoko **198 eskaerari** erantzun die, honela banakatuta:

ERREKERIMENDUAK /ESKAERAK	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Jasotako errekerimenduak	Txostenak	Jasotako errekerimenduak	Txostenak	Jasotako errekerimenduak	Txostenak
LEHEN SEKTOREA	-	-	-	-	6	3
INDUSTRIA	21	15	40	35	40	23
ERAIKUNTZA	5	2	6	11	37	16
ZERBITZUAK	15	9	7	4	17	12
LAN-OSASUNA	-	-	-	-	4	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>41</b>	<b>26</b>	<b>53</b>	<b>50</b>	<b>104</b>	<b>54</b>

**Laneko istripu hilgarrien, oso larrien, larrien eta biktima ugari eragin dituztenen kausak ikertzea eta prebentzio-neurriak ematea**

Prebentzio-irizpideei jarraiki betiere, Osalanek **laneko 437 istripu** ikertu ditu, EAEn jazotako guztizkotik (ikus 1. eranskina).

ISTRIPUAK	Industria	Eraikuntza	Lehen sektorea	Zerbitzuak	GUZTIRA
Hilgarriak	9	6	3	13	31
Larriak / Oso larriak	42	17	7	42	108
Arinak	156	36	12	85	289
Anizkoitzak	4	-	-	5	9
<b>GUZTIRA</b>	<b>211</b>	<b>59</b>	<b>22</b>	<b>145</b>	<b>437</b>

**Irekiera jakinarazi duten Industria, Zerbitzu eta Lehen Sektoreko enpresen lan-zentroetako Laneko Arriskuen Prebentzioa gainbegiratzea**

Osalaneko teknikariak **537 lantokitara** joan dira, prebentzio-jardueran aholkularitza eskaintzearen; lantoki horiek berriak ziren, edo lehendik egon arren aldaketa garrantzitsuren bat izan dute.

LANTOKIAK IREKITZEA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
LEHEN SEKTOREA	7	-	1	8
INDUSTRIA	43	86	45	174
ZERBITZUAK	66	285	4	355
<b>GUZTIRA</b>	<b>116</b>	<b>371</b>	<b>50</b>	<b>537</b>



### Lanarekin lotutako gaixotasunak ikertzea

Osalanek lanak eragindakoa izan daitekeen patologia bat diagnostikatutako **126 kasu** aztertu ditu, honela banatuta:

GAIXOTASUNAK		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Egindako ikerketak	Amiantoa	14	31	28	<b>73</b>
	Beste faktore batzuk	15	25	13	<b>53</b>
	GUZTIRA	29	56	41	<b>126</b>
Egindako txostenak		25	52	32	<b>109</b>

### OSALANen Higiene Laborategiko jarduera

Osalanen Analisi Higienikoen Laborategia Bizkaiko Lurralde Zentroan kokatuta dago, eta Laneko Higiene eta Osasunaren esparruan kutsatzaile kimikoak analizatzeko diseinatuta dago bereziki; Osalanen beste sail tekniko batzuei ez ezik, eskaera egiten duten kanpoko bezeroei ere eskaintzen dizkie zerbitzuak.

Hau da 2014an egindako jardueren laburpena:

<b>Egindako txostenak:</b>	<b>214</b>
• Ingurumenari dagozkionak	<b>206</b>
• Biologikoak	<b>8</b>
<b>Erabakien kopurua:</b>	<b>2.311</b>
• Ingurumenari dagozkionak	<b>2.287</b>
• Biologikoak	<b>24</b>
<b>Fakturazioa</b>	<b>22.735 €</b>

2014an gertaera bereziki garrantzitsu bat izan da: **Osalanen Analisi Higienikoen Laborategia amianto-zuntzen analisisian (kontaketan) espezializatutako laborategitzat egiaztatu dute**, Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzaren 2015eko martxoaren 4ko Ebazpenaren arabera.

Egiaztapen hori mugagabea da eta lurralde nazional osorako da baliagarria. (74 zk. BOE, 2015eko martxoaren 27koa).



## EAEn identifikatutako legionella kasuen jatorria lana ote zen ikertzea

Osasun Sailak eskatuta, honako jarduera hauek gauzatu ditugu:

Ikertutako kasuen kopurua	7
Egindako txostenak:	6
• Aldekoak	1
• Ezezkoak	5
Eragindako langileen kopurua	7 (kasu bakoitzean 1)

### Osalanen Laneko Osasunaren Unitatearen jarduera Prebentzio Zerbitzuen gaineko osasun-agintaritza den aldetik

Prebentzio Zerbitzuen gaineko Osasun Agintaritza den aldetik, Osalanek bere eskumenak baliatuta garatu dituen jardueren emaitzak honako hauek dira:

- Prebentzio Zerbitzuen osasun-jarduera baimentzea eta kontrolatzea

Baimen sanitarioa edo prebentzio-zerbitzuak etetea	Jasotako baimen-eskaerak	240
	Jasotako uzte-eskaerak	27
	Egindako txostenak	193
Ebazpenak		222
Irekitako zehapen-espeditentak		3

- Osalanen jasotako salaketak, Prebentzio Zerbitzuen osasun-jarduerari buruzkoak

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Salaketak, osasun-agintaritza	4	8	5	17
Txostenak	4	6	7	17

### Osalanen **egitura eta funtzionamendua**

Osalanen egituran ez da aldaketa garrantzitsurik gertatu 2014. urtean, eta hobeto funtzionatzeko beharrezkoak ziren aldaketa txikiak baino ez dira egin. Lanpostuak aldatzeko espedienteak izapidetu dira hainbat lanposturen mailak eta zentro organikoetara atxikimendua aldatzeko, bai eta zenbait plaza sortzeko eta amortizatzeke ere.

---

**Egungo ezbehar-tasaren ereduaren azterketari dagokionez, proiektu hori, oraingoz, errepidean gertatutako lan-istripuen eremuaren barruan abiarazi da, baina datozen bi urteetan gainerako gertakari motetara zabalduko da.**

---



# 2.13

## LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEAN INPLIKATUTAKO ERAGILEEN PARTE-HARTZEA ETA HAIEN ARTEKO LANKIDETZA

Laneko arriskuen prebentzioan inplikaturako eragileen arteko lankidetzak sistematikoak eta estuak funtsezkoak dira jardunak eraginkorrak izan daitezkeen eta langileen segurtasuna eta osasuna hobetzen eragina izateko. **Gizarte-eragileen** kasuan, lankidetzak hori bereziki beharrezkoa eta garrantzitsua da, prebentzioarekin lotutako gaiak gehien eragiten dieten kolektiboak enpresaburuak eta langileak diren aldetik.

Horren jakitun izanik, Osalaneen erakundeak dagokion arloan interesa duten talde guztiei hitza ematen saiatzen gara eta, bereziki, gizarte-eragileei; haiekiko adostasuna lortzea da gure helburu nagusia jardunak proposatzeko garaian.

Ildo beretik, lan-ildo espezifiko bat eratu dugu gizarte-eragileen parte-hartzeak garrantzi handigoa duen ekintzetarako; jarraipen berezitua egiten zaie ekintza horiei.

Ekintza horietan egindako aurrerapenak honako hauek dira:

**Enpresei eta, zehazkiago, enpresa txiki eta ertainei laneko arriskuak prebenitzeko kudeaketa-lanetan aholkularitza eskaintzea**

Aholkularitza eta laguntza teknikoak emateko eginkizuna etengabe garatzen du Osalane bere kanpainetan, bai eta web-postontzietan eta Lurralde Zentroetan jasotzen diren kontsultei erantzunez ere, J.11 arloko jardunak deskribatu ditugunean lehen ere zehaztu dugunez.

Gure erakundeak ematen duen laguntza tekniko horren zati oso garrantzitsu bat da enpresei –bereziki ETEei– prebentzio-jarduerak garatzeko tresnak, bitartekoak eta irizpideak eskaintzea, dela zuzenean, dela zerbitzu hori ematen dieten erakunde espezializatuen bitartez.

Tresna horien artean daude, besteak beste, Osalane argitaratzen dituen gidaliburuak, protokoloak, informaziorako eta prestakuntzarako argitalpenak eta abar; edo webgunean argitaratzen diren eduki eta esteka guztiak, betiere kolektibo horretara iristeko asmoz.

**Osalane egindako kanpainetako emaitzak eta gida teknikoak ezagutaraztea eta zabaltzea**

Ekintza hori aurrekoarekin lotuta dago, eta hein batean, helburu berdina du, hau da, lantokietan eta enpresetan aplikatzeko moduko jakintza eta prebentzio-kultura sortzea.

2014. urtean Osalane lan handia egin du dibulgazioaren, informazioaren eta prestakuntzaren arloetan, eta dokumentu honetako aurreko ataletan ongi adierazi dugu lan hori guztia: Osalane antolatutako jardunaldi teknikoak eta ekitaldiak, sortutako eta ohiko kanalen bidez nahiz webgunearen bidez banatutako argitalpenak eta dibulgazio-materiala, foroetan izandako parte-hartzeak eta abar; era berean, gure erakundeak gauzatzen dituen jardunen emaitzen berri eman dugu toki horietan guztietan.

**Gida teknikoak sinplifikatzea eta egokitzea, hobeto uler eta aplikatu daitezkeen**

Ekintza horrek lotura handia du aurreko biek, eta Osalane sortzen duen jakintza guztia gero jakintza hori enpresetan

eta lantokietan aplikatu behar dutenei helaraztea du helburu, berriro ere. Ildo beretik, hausnarketa-prozesu bati ekin diogu erakundean, produktu bakoitzaren xede-publikoa zein den, zer ezaugarri dituen eta zer premia dituen identifikatzeko, tresna erabilgarriagoak eta haien helburuetarako egokiagoak eskaintzearren.

### **Enpresa- eta sindikatu-erakundeek antolatutako foro teknikoetan parte hartzea**

Enpresa-erakundeek eta sindikatuek antolatutako ekitaldietan parte hartu du Osalanek, gonbidatu dutenean, eta prebentzioaren aldeko ekimen horiei bultzada eman nahi izan diegu, bertan egonda.

Hainbat erakunde eta elkartek antolatutako foroetan Osalanek izan duen parte-hartzea 3. eranskinean zehaztuta dago.

### **E-learning prestakuntzan lankidetzan aritzea**

Ekintza honi buruz lehen ere aipatu ditugun lorpenez gain, prebentzio-ordezkariak birziklatzeko e-learning-aren bidea erabiltzeko aukera aztertu du Osalanen Zuzendaritzak, Osalanen Moodle plataforman txertatutako autoebaluaziorako galdesorta baten bitartez.

» 2015ean gehiago sakonduko dugu gai horretan, gizarte-eragileen ekarpenak jasoko baititugu. «

### **Industria-sektoreko enpresetan gertatzen diren lan-istripuetan azpikontratazioak duen inpaktua**

Hainbat jardunetan aztertu du Osalanek azpikontratazioaren gaia eta datozen urteotan lantzen jarraituko dugu. 2014. urtean, dibulgazio-ekintzak egin ditugu, batik bat.

### **Enpresek eta prebentzio-zerbitzuek egiten dituzten arrisku-ebaluazioen barnean arrisku psikosozialak jasotzea**

Enpresek egiten dituzten arriskuen ebaluazioetan arrisku psikosozialak nola lantzen dituzten jakiteko, Osalaneko langileen jardun teknikoan gai hori txertatzeko metodologia garatu dugu. Arabako teknikariek proba pilotua egiten ari dira, ondoren gainerako lurraldeetara zabaltzeko.

# BALIABIDEAK

# 03

2014rako Kudeaketa Planaren garapenean erabili diren baliabideak ekitaldiaren hasieran aurreikusitakoak izan dira; hain zuzen ere, ondoren zehaztuta ageri direnak.

## 3.1

## BALIABIDE EKONOMIKOAK



2014ko ekitaldian jarduera gauzatzeko Osalanek izan dituen gastu eta diru-sarreraren aurrekontua honela banatu zen:

GASTUAK		
I. kapitulua	Langile-gastuak	9.885.373
II. kapitulua	Funtzionamendu-gastuak	2.485.002
III. kapitulua	Finantza-gastuak	225
IV. kapitulua	Transf. eta diru-lag. Gastu arruntak	1.227.400
VI. kapitulua	Inbertsio errealak	307.000
VII. kapitulua	Finantza-aktiboen gehikuntza	30.000
<b>GUZTIRA</b>		<b>13.935.000</b>

DIRU-SARRERAK		
III. kapitulua	Tasak, prezio publikoak eta beste batzuk	33.294
IV. kapitulua	Transferentzia arruntak	13.070.206
V. kapitulua	Ondare-sarrerak	1.500
VIII. kapitulua	Finantza-aktiboen gutxitzea	830.000
<b>GUZTIRA</b>		<b>13.935.000</b>

## 3.2

### GIZA BALIABIDEAK



Osalango langile guztiek parte hartu dute 2014rako Kudeaketa Planaren garapenean, betiere nor bere lanpostuaren funtzio-eremuaren barruan.

Osalanen plantillan guztira **178 profesional** daude gaur egun; horietatik 26 osasunaren zaintzaren arloari atxikitakoak dira, 83 arlo teknikoa osatzen duten unitate sektorialetakoak dira, eta 69 langilek arlo administratiboan, juridikoak eta giza baliabideen arloan laguntzeko lanak egiten dituzte.

Langileak Zerbitzu Zentraletan eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Zentroetan banatuta daude, honako organigrama honen arabera:

2014rako Kudeaketa Plana garatzean aplikatutako **funzionamendu-operatiba** bat etorri da planaren diseinubaldintzekin, eta Erakundearen egitura organikoari ahalik eta gehien egokitzeko ahalegina egin da, aldi berean, erakundearen interesak eta langileen interesak uztartzen saiatuta.

**Bestalde, lanaren barne-antolaketa Prebentzio Zerbitzuen Arautegia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan jasotako prebentzio-diziplinen arabera egituratu da; hori horrela izanik, Unitate Tekniko Sektorialean arlo hauek daude: Laneko Segurtasuna, Industria Higienea, Ergonomia eta Psikosoziologia aplikatua; eta Laneko Osasunaren Unitatea laneko medikuntzari dagozkion alderdiez arduratzen da.**



# 2014rako KUDEAKETA PLANAREN GARAPENARI BURUZKO BALIOESPENA

# 04

Aurreko kapituluetan, Osalanek 2014rako Kudeaketa Planean sartutako jardun-arloetan egin duen lanari buruz aritu gara, eta arlo bakoitzean izandako lorpenen ebaluazioa ere egin dugu.

Lan-ildo bakoitzaren balioespen berezi horretaz gain, Planaren garapenari buruzko azterketa bateratu bat ere egin behar da, alde batetik, lortutako arrakastak adierazita eta, bestetik, emaitzak uste baino kaskarragoak izan diren eremuak zehaztuta. Azken horiei dagokienez, hausnarketa bat egin beharko genuke aurrerabidea nahi baino txikiagoa zergatik izan den aztertzeko eta/edo helburuak erabat ez betetzearen arrazoiak aurkitzeko.

Ikuspegi orokor batetik begiratuta, Osalanen balioespen oso positiboa egiten dugu 2014. urtean egindako jarduerari dagokionez. Ez da urte erraza izan: krisialdi ekonomikoan murgilduta jarraitzen dugu eta bai sektore pribatua, bai sektore publikoa krisialdi horren eraginpean daude.

Laneko ezbehar-tasari dagokionez, 2007. urteaz geroztik laneko istripuen tasa etengabe murrizten ari zen baina, datuen arabera, jaitsiera hori murriztu egin da; beraz, datozen urteotan erne egon beharko dugu joera aldatzen ari ote den ikusteko. Gaixotasun profesionali dagokienez, jakin badakigu fenomeno hori oraindik ez dela erabat azaleratu, nahiz eta Osalan lan handia egiten ari den, baina gaixotasun horiek detektatzen eta horien tratamenduan asko aurreratzen ari gara.

Gure erakundeak lanarekin zerikusia duten istripuen eta gaixotasunen arrazoiak aztertzen ditu eta, lan horretan oinarrituta, gomendioak eta prebentzio-neurriak eskaintzen ditugu; baina hori guztia erreakzio-lana baino ez da, gertatu behar ez luketen egoeren aurreko erreakzio-lana. Zentzu horretan, kalteari aurrea hartu behar diogu eta kalteak saihesteko lan egin behar dugu, araudiak ezartzen duen prebentzio-ekintzaren printzipioak aplikatuta.



lido horretan txertatu dira Osalanen jardun gehientsuenak, dela enpresetan, lantokietan eta eraikuntza-obretan egindako landa-lana, dela jakintza sortzearekin eta sentsibilizazio-kanpainekin lotutako proiektuak. Eredu horietan guztietan garatu diren ekimenen helburua prebentzio-ekintzaren kalitatea hobetzea izan da, batik bat, hain ezagunak ez diren eta behar besteko tratamendurik ez duten arriskuei dagokienez. Era berean, prebentzio-arazo handiagoak dituzten sektore eta jardueretan bereziki jardun dugu, kolektibo espezifikoaren premiak alde batera utzi gabe.

Osalan komunikabideetan, ekitaldi eta jardunaldi teknikoetan eta, batez ere, Interneten agertzen hasi da eta laneko segurtasuna eta osasuna ere ikusgai bihurtu du, bere webgunearen eta orriaren bitartez eta sare sozialetako jarduerari handiari esker; hartara, prebentzioaren arloko edukiak eta mezuek errazago zabaldu ahal izan ditugu.

Bestalde, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan jarduten duten gainerako eragileekin lankidetzan aritzeko ere lan handia egiten du Osalanek eta, bereziki, gizarte-eragileei hitza emateko eta haiekiko adostasuna lortzeko ahalegin handia egin dugula nabarmendu nahi dugu.

Lankidetzaren aldeko jarrera horren adibiderik argiena 2015-2020rako Laneko segurtasun eta osasunerako Euskal Estrategia berri lantzeko prozesua izan da; izan ere, prozesu horretan, Osalan gidari izan da, bai, baina lan kolektibo handia egon da atzean, eremu publikoko nahiz pribatuko hainbat instantziatako ordezkarien parte-hartzearekin. Oso gustura gaude lortutako emaitzarekin, zeren datozen urteetan EAEko laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko esparru estrategikoa eratuta geratu baita, esparru sendoa, proposamen oso aberatsak dituela, eragile askoren eta askotarikoaren ekarpenak biltzen dituen aldetik. Guretzat harro egoteko moduko arrazoi

dira eragile horiek guztiak erakartzeko gai izan garena, haien inplikazioa erabatekoa izan dela, eta haien guztien ikuspegiak dokumentu adostu batean bateratzea lortu dugula.

2015-2020rako Estrategia lantzeak dedikazio handia eskatu dio Osalani, baina hori ez da eragozpen izan aurreikusita genituen lan-ildoguztietan jarduerak garatzeko eta, gainera, kasu gehienetan, finkatuta genituen helburuak betetzeko ere. Laneko segurtasunaren eta osasunaren hainbat arlotan, dibulgazioko, informazioko eta prestakuntzako jardueraren bitartez, jakintza sortzeko egin dugun lana nabarmendu nahi dugu, gure ustez erakundearen zeregin garrantzitsuena baita prebentzioa gauzatzea, baina ez guk, baizik eta lantokietan gauzatu behar dutenek eta gauza dezaketenek; horretarako, sentsibilizatu egin behar ditugu eta tresna eta jakintza egokiak eskaini behar dizkiegu.

Azkenik, Osalanen zerbitzu publikoko bokazioa aipatu nahi dugu; bokazio horrek gure zerbitzuak etengabe hobetzeko prozesuari ekitera bultzatu gaitu, eta AURRERABIDE proiektuaren esparruan gauzatzen ari gara prozesu hori, Eusko Jaurlaritzan kudeaketa publikoaren eredu aurreratua ezartzeko. 2014an gure erakundearen ikuspegia eta xedea landu ditugu, bai eta zerbitzu-katalogoa eta zerbitzu horiek emateko prozesuak ere. Prozesu horiei dagokienez, estrategikotzat jotzen ditugunak berrikusten, dokumentatzen eta berriz diseinatzen hasi gara, eta aldi berean, epe motzera aplikatzeko moduko antolakuntzako hobekuntzak txertatu ditugu.

Ondorio gisa zera esango dugu, Osalanen oso positibo irizten diogula 2014ko ekitaldian egin dugun lanari eta, jakin badakigunez oraindik ere gauza asko ditugula egiteko eta hobetzeko aukerak ere baditugula, gure jarduerari eutsi egingo diogu EAEko langileen segurtasuna eta osasuna hobetzearren.

## 01 ERANSKINA

EAEKO ISTRIPUEI  
BURUZKO DATUAK

LAN-ISTRIPUAK	BALIO ABSOLUTUAK		URTETIK URTERAKO ALDAKETA	
	2014	2013	Absolutua	%-tan
<b>ERREFERENTZIAZKO ALDIAN BAJA ERAGIN DUTEN LAN-ISTRIPUAK</b>	29.646	29.442	204	0,7
Istripu berriak	28.095	27.960	135	0,5
Berriz gaixotzeak	1.551	1.482	69	4,7
<b>BAJA ERAGIN DUTEN LAN-ISTRIPU BERRIAK</b>				
<b>Lanaldian</b>				
Arinak	24.651	24.445	206	0,8
Larriak	137	138	-1	-0,7
Hilgarriak	28	28	0	0,0
<b>Istripuak, guztira</b>	<b>24.816</b>	<b>24.611</b>	<b>205</b>	<b>0,8</b>
<b>In Itínere</b>				
Arinak	3.258	3.324	-66	-2,0
Larriak	19	19	0	0,0
Hilgarriak	2	6	-4	-66,7
<b>Istripuak, guztira</b>	<b>3.279</b>	<b>3.349</b>	<b>-70</b>	<b>-2,1</b>
<b>LANALDIAN GERTATU DIREN ETA BAJA ERAGIN DUTEN LAN-ISTRIPU BERRIAK</b>				
<b>Lurraldeka</b>				
Araba	4.764	4.514	250	5,5
Bizkaia	12.262	12.344	-82	-0,7
Gipuzkoa	7.790	7.753	37	0,5
EAE	24.816	26.611	205	0,8
<b>Heriotza eragindako istripuak</b>				
Araba	4	4	0	0,0
Bizkaia	14	15	-1	-6,7
Gipuzkoa	10	9	1	11,1
EAE	28	28	0	0,0
<b>ERAGIN-TASA, SEKTOREKA</b>				
<b>Istripuak, guztira</b>	36,01	35,77	0	0,7
Lehen sektorea	72,13	65,02	7	10,9
Industria	58,68	56,26	2	4,3
Eraikuntza	76,21	73,42	3	3,8
Zerbitzuak	25,85	26,18	0	-1,3
<b>BAJARIK ERAGIN EZ DUTEN LAN-ISTRIPUAK</b>	45.806	45.183	623	1,4

<b>GAIKOTASUN PROFESIONALAK</b>	<b>BALIO ABSOLUTUAK</b>		<b>URTEK URTERAKO ALDAKETA</b>	
	2014	2013	Absolutua	%-tan
Baja eragin dutenak	895	777	118	15,2
Bajarik eragin ez dutenak	1.570	2.002	-432	-21,6
<b>Guztira</b>	<b>2.465</b>	<b>2.779</b>	<b>-314</b>	<b>-11,3</b>

## 02 ERANSKINA

OSALANEK 2014RAKO  
KUDEAKETA PLANAREN  
ESPARRUAN ANTOLATUTAKO  
EKITALDIAK

EKITALDIA	DATA	TOKIA	HELBURUA
Prebentzio-zerbitzuetako osasun-arloko langileentzako prestakuntza-planari buruzko jardunaldia: laneko historia klinikoaren eredu berria (Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Mediku Zientzien Akademiarekin lankidetzan).	otsailak 19	Bilbo	Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileen prestakuntza-plana aurkezteko ekitaldia, erakunde horietan egunero diharduten sektoreko profesionalen parte-hartzea sustatzea helburu hartuta, baterako plan egonkor eta etengabea prestatze aldera. Proiektuaren lehen urrats gisa, jardunaldian definitu dira jorratuko diren gaiak, garatuko diren ikasgai eta ikastaroak, eta prestakuntza-plan «bizi» bat prestatzeko egin daitezkeen doitzeko eta aurrerabideak. Halaber, jardunaldian aurkeztu da laneko historia klinikoaren eredu berria, prebentzio-zerbitzuen elkartearekin batera garatua.
2013an Osalaneke finantzaturako ikerketa-proiektuak aurkezteko jardunaldia.	otsailak 28	Bilbo	Zenbait erakundek (SGS Tecnos, Lantegi Batuak, Tecnalía, Onkologiko Fundazioa, Ingema eta Ermuko Udala) egindako ikerketa-proiektuen emaitzen aurkezpena.
Laneko arriskuen prebentzioa, prebentzioko ordezkarientzako eskuliburuak aurkezteko jardunaldia.	martxoak 13	Bilbo	Eskuliburuaren aurkezpena: aurrekariak eta egungo egoera; eskuliburuari buruzko alderdi teknikoak.
Lanbide-gaixotasunaren arloko lege-erantzukizunari buruzko jardunaldi teknikoak.	martxoak 28	Bilbo	Langileen eskubideak gaixotasun profesionalaren aurrean, eta dauden erantzukizun guztiak: administratiboa, osasun-arlokoa, penala, zibila eta soziala.
Makinariaren erosketa: makineria berria eta bigarren eskuko makineriari buruzko jardunaldi teknikoak.	maiatzak 16	Bilbo	Segurtasunaren azterketa makinen diseinuan, fabrikazioan eta martxan jartzean, eta makineria berria nahiz 2. eskukoa erosteko gomendioak. Makineria zaharra berritzeko laguntzen programaren aurkezpena.
Lehen tailer teoriko praktikoa: Osasunaren zaintzako lege-alderdiak eta Moodle plataformaren aurkezpena (Osalan, Lan Medikuntzaren Euskal Elkarte, Bilboko Mediku Zientzien Akademia)	ekainak 10 ekainak 12 ekainak 17	Barakaldo Gasteiz Donostia	Jarduera hori Prebentzio Zerbitzuetako osasun-langileei zuzendutako prestakuntza-planean bitzen da.
EAEen 2013an izandako ezbehar-tasari eta lanbide-gaixotasunei buruzko txostena aurkezteko jardunaldia.	ekainak 11	Bilbo	EAEko istripu-tasei eta gaixotasun profesionalari buruzko 2013ko datuen aurkezpena eta analisisa.

# 02 ERANSKINA

OSALANEK 2014RAKO  
KUDEAKETA PLANAREN  
ESPARRUAN ANTOLATUTAKO  
EKITALDIAK

EKITALDIA	DATA	TOKIA	HELBURUA
<p>Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko OSALANen Udako IV. ikastaroa «Lanaren eraginez sortutako arnasketako gaixotasunak. Erregistroa eta epidemiologia»; eta «Goiko gorputz-adarreko arrisku ergonomikoen ebaluazioa eguneratzea». «Ergonomia proiektuan eta diseinuan»</p>	<p>ekainak 26 eta 27</p>	<p>Donostia</p>	<p>Udako ikastaro honen oinarritzko helburua honako hau da: lanak eragindako arnas-gaixotasun kronikoen gainean interesa dutenak sentsibilizatzea, eta gaixotasun horiek lanarekin duten lotura, eraginpean egotearen eragina, lanbide-gaixotasunaren susmoaren jakinarazpena eta eragileek prozesuan izaten duten esku-hartzea ezagutaraztea.</p> <p>Bigarren egunean gihar eta hezurretako nahasmenduei buruz hitz egin da, eta EAEn gehien gertatzen den lan-istripua ez ezik, gure Autonomia Erkidegoan gehien jakinarazten den gaixotasun profesionala ere badela nabarmendu da. Gihar eta hezurretako nahasmendu mota horrek, batik bat, goiko gorputz-adarrak hartzen ditu eraginpean eta, prozesu jakin batzuetan, bereziki, emakumei eragiten die; horrela, bada, nahasmendu mota horren arriskua ebaluatzeko metodo ergonomiko eguneratuak aurkeztu dira.</p>
<p>Eraikuntza industrialeko obra handietan segurtasuna kudeatzeko jardunbide egokiei buruzko jardunaldi teknikoak.</p>	<p>irailak 12</p>	<p>Bilbo</p>	<p>Eraikuntzako obra handietan segurtasunaren kudeaketan izan dituzten esperientzia praktikoak azaldu dituzte zenbait enpresak; izan ere, obra horietan zeregin asko, azpikontrata asko, makineria astun asko dabil mugimenduan... eta, azken batean, langile askok parte hartzen duenez, laneko arriskuen prebentzioa oso zaila izaten da.</p>
<p>Jardunaldi teknikoak: «Prebentzio-zerbitzuen osasun-kudeaketaren etorkizuna. Hausnarketak, 843 Errege Dekretua onetsi eta bi urtera»</p>	<p>urriak 10</p>	<p>Bilbo</p>	<p>Hiru paneletan gonbidatutako adituen laguntzarekin, prebentzio-zerbitzuetako osasun-antolamenduari etorkizunaren azterketa egin da 843/2011 Errege Dekretua indarrean hasi zenetik hiru urte igaro direlarik.</p> <p>Langileen osasuna hobetu egingo al da lege-aldaketa horren ondorioz?</p>
<p>Enpresetan droga-mendetasunen prebentziorako planen ezarpenerako gidaliburuari buruzko jardunaldi teknikoak.</p>	<p>urriak 17</p>	<p>Bilbo</p>	<p>Langileen adikzioen arazoak zuzenean eragiten du lan-jardunean eta lanean izan ditzaketen arriskuei dagokienez. Eta ezin dugu ahaztu ez garelako soilik alkoholaren, tabakoaren edo bestelako drogen kontsumoari buruz ari, baizik eta langilearen jokabidean eragin negatiboa izan dezakeen edozein adikzio motari buruz.</p> <p>Jardunaldi horretan Osalane egindako gidaliburu bat aurkeztu da eta, bertan, enpresek arazo gero eta handiago horri aurre egiteko ezartzen dituzten jardun-planak biltzen dira.</p>
<p>Osasun-langileentzako tailer teoriko-praktikoak (borondatezko prestakuntza): buruko min kronikoa eta lana (Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Mediku Zientzien Akademiarekin batera).</p>	<p>urriak 23</p>	<p>Bilbo</p>	<p>Jarduera horiek Prebentzio Zerbitzuetako osasun-langileei zuzendutako prestakuntza-planean bitzen dira, borondatezko ibilbidearen barruan.</p>

## 02 ERANSKINA

OSALANEK 2014RAKO  
KUDEAKETA PLANAREN  
ESPARRUAN ANTOLATUTAKO  
EKITALDIAK

EKITALDIA	DATA	TOKIA	HELBURUA
«Generoaren analisia lanaren eta osasunaren eremuan» jardunaldi teknikoa.	urriak 31	Gasteiz	Laneko arriskuen prebentzioan generoaren alderdia aztertzea da jardunaldiaren helburua. Emakumeen egoerari buruzko ikuspegi orokorra eman da, eta lan-baldintzei, arriskuen eraginpean egoteari eta osasunaren gaineko kalteei dagokienez emakumeen eta gizonen artean izan daitezkeen aldeak ere azaldu dira; halaber, prebentzioaren kudeaketan genero-ikuspegia nola txertatu eta langile espezializatuak nahiz Administrazioako langileek eremu horretako problematikari nola aurre egin ere eztabaidatu da.
Prebentzio-zerbitzuetako osasun-arloko langileentzako bigarren tailer teoriko-praktikoa: osasunaren zaintzaren plangintza (Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Medikuz Zientzien Akademiarekin lankidetzan).	azaroak 11 azaroak 12 azaroak 13	Oñati Barakaldo Gasteiz	Jarduera horiek Prebentzio Zerbitzuetako osasun-langileei zuzendutako prestakuntza-planean bitzen dira.
OSALANek antolatutako laneko psikosoziolegari buruzko V. jardunaldia.	azaroak 21	Bilbo	V. jardunaldi horretan, arrisku psikosozialen prebentziozko ikuspegia, batik bat, landu nahi da. Erakunde osasungarriak aipatu dira, eta prebentzioaz ere hitz egin da, aukeratzat hartuta, gure inguruko hiru enpresak arrisku psikosozialei dagokienez izan duten esperientzia abiapuntu izanik. Era berean, Osalane arrisku psikosozialen arloan enpresaburuen artean jardunbide egokiak sustatzeko egindako kanpainari dagozkion datuak aurkeztu dira, bai eta prebentzio-ordetzariaren gidaliburua, Laneko jazarpena gertatzen denerako jokabideen protokoloa lantzeko gidaliburua, eta arrisku psikosozialen eraginpean dauden langileen osasuna zaintzeko gomendioen gidaliburua ere. Azkenik, gizarte-eragileek enpresetan arrisku psikosozialen prebentzioa hobetzeko eremuei buruzko iritziak azaldu dituzte.
Pertsona edadetuak lanean: arazo eta ekimenei buruzko jardunaldi teknikoa.	abenduak 12	Bilbo	Demografia aldatu egin da, erretiroa hartzeko adina atzeratu egin da eta, beraz, lan-bizitza luzatu; faktore horien guztien ondorioz, langileak gero eta zaharragoak dira. Prebentzioaren printzipioetako bat landu nahi da; hain zuzen ere, lanpostua pertsonaren arabera egokitzea, kolektibo guztien laneko segurtasuna eta osasuna zaintzeko tresna den aldetik.

# 03 ERANSKINA

## OSALANEK ZER EKITALDITAN PARTE HARTU DUEN 2014EAN

EKITALDIA	ANTOLATZAILEA	DATA	TOKIA	OSALANEN PARTE-HARTZEA
ASPA EUSKADI jardunaldia	ASPA	urtarrilak 22	Bilbo	Zuzendari nagusiaren aurkezpena eta Laneko Osasunaren Unitateko arduradunaren ponentzia
Osakidetzako Arreta Espezializatuko langileei prestakuntza ematea laneko gaixotasunaren susmoaren berri emateko	OSALAN	urtarrilak 24	Mendaroko Ospitalea	Osalanen Gipuzkoako Lurralde Zentroko mediku batek emandako prestakuntza
Saio klinikoak: "Arrisku psikosozialak zer diren eta haien prebentzioa"	ARANBIZKARRA ANBULATORIOA	otsailak 19	Gasteiz	Laneko psikosozilogiaz arduratzen den Osalaneko lantaldearen ponentzia
"Bihotz-biriketako bizkortzeari" buruzko informazio-kanpainaren aurkezpena	OSASUN SAILA BILBOKO UDALA	otsailak 20	Bilbo	Zuzendari nagusiaren aurkezpena
Eraikuntzako segurtasun eta osasunari buruzko hitzaldia	EHU Arkitektura-fakultatea	otsailak 28	Donostia	Gipuzkoako Lurralde Zentroko 2 teknikarik emandako prestakuntza
Prestakuntzako jardunaldi teknikoak	HILTI SA	martxoak 19	Barakaldo	Aurkezpena zuzendari nagusiak
Eraikuntzako segurtasun eta osasunari buruzko hitzaldia	EHU Arkitektura-fakultatea	martxoak 24	Donostia	Gipuzkoako Lurralde Zentroko 2 teknikarik emandako prestakuntza
Jardunaldi teknikoak: Lan-ekipoen segurtasuna, egokitzeko ibilbide-orrria	BIZKAIKO METAL ARLOKO ENPRESEN FEDERAZIOA	martxoak 26	Bilbo	Zuzendari nagusiak eman dio hasiera, eta erakundearen laneko arriskuen prebentzioko teknikari baten ponentzia: "Makinaria eta istripuak"
"Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Europako Agentziari Bilbon egoitza egonkor bat emateko akordioa"	LANEKO SEGURTASUNERAKO ETA OSASUNERAKO EUROPAKO	martxoak 31	Bilbo	Aurkezpena zuzendari nagusiak
Prestakuntzako 2. jardunaldi teknikoak	IPAF	apirilak 10	Barakaldo	Aurkezpena zuzendari nagusiak

## 03 ERANSKINA

OSALANEK ZER  
EKITALDITAN PARTE  
HARTU DUEN 2014EAN

EKITALDIA	ANTOLATZAILEA	DATA	TOKIA	OSALANEN PARTE-HARTZEA
Jardunaldia: "Harriaren eta marmolaren sektorearen egungo egoera silikosiaren prebentzioari dagokienez"	CEBEK	apirilak 4	Bilbo	Bizkaiko Lurralde Zentroko teknikarien ponentziak: "Silizea. Esposizioa eta prebentzio-neurriak" eta «Osasunaren zaintza harriaren eta marmolaren sektorean»
Arrisku psikosozialen prebentzioari buruzko jardunaldia.	GAS NATURAL	2014ko apirilak 14	Bilbo	Laneko psikosozilogiaz arduratzen den Osalaneko lantaldearen ponentzia eta itxiera zuzendari nagusiak
Arrantza sektorean osasuna zaintzeko gidaren III. zatiaren aurkezpena	BILBAO PORT	2014ko apirilak 15	Santurtzi	Jardunaldi honetan parte hartu dutenak: Osalan, Bilboko Portuko Agintaritzak, eta Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Europako Agentzia; Bilboko Portuko Agintaritzak prebentzioaren arloan egindako aurrerabidea eta programa aurkeztu da, bai eta Europako Agentziaren "Lan Osasungarriak: kudea dezagun estresa" kanpaina eta Eusko Jaurlaritzaren arrantzarako osasun-gidaliburua ere
Jardunaldi teknikoak: "Segurtasuna eta osasuna lanean produktu kimikoak erabiltzen direnean".	LSHIN	Apirilak 24	Madril	Zuzendariorde teknikoak eta planifikazioko zuzendariordeak parte hartu dute.
Laneko segurtasunaren eta osasunaren eguna.	CAF	2014/04/28	Beasain	2 saio: Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legea - Eskubideak eta betebeharrak, Laneko Arriskuen Prebentzioko arduradunaren eta Gipuzkoako Lurralde Zentroko teknikari baten eskutik
Mutualia Sariak (VI. edizioa) emateko ekitaldia	SP MUTUALIA	apirilak 29	Donostia	Amaiera zuzendari nagusiak
Laneko erizaintza eguneratzeko VII. jardunaldia	BIZKAIKO ERIZAINZTA ESKOLA	apirilak 29	Bilbo	Laneko Osasunaren Unitateko kideen ponentzia: "Prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduera kontrolatzea"



# 03 ERANSKINA

OSALANEK ZER  
EKITALDITAN PARTE  
HARTU DUEN 2014EAN

EKITALDIA	ANTOLATZAILEA	DATA	TOKIA	OSALANEN PARTE-HARTZEA
EUROPA FORUMA gosaria. Tribuna Euskadi Izaskun Bilbao	EUROPA FORUMA	maiatzak 5	Bilbo	Zuzendari nagusiaren bertaratzea
Herbeheretako ordezkari baten bisitaldia (Falke & Vervaan)	OSALAN eta BILBAO PORT	maiatzak 7	Barakaldo eta Santurtzi	Aurkezpena zuzendariak eta Administrazio, Antolaketa eta Giza Baliabideetako zuzendariordeak; bisitaldia Osalanen laborategira
Jardunaldia: "Laneko arriskuen prebentzioa jabeakideen erkidegoek sustatutako obretan"	ERAIKUNTZAKO LAN FUNDAZIOA	maiatzak 8	Bilbo	Hasiera zuzendari nagusiak
Laneko segurtasun eta osasunari buruzko erakusketa iraunkorra	LEA ARTIBAI TEKNIK IKASTETXEA	maiatzak 9	Bilbo	Hasiera zuzendari nagusiak
Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Nazioarteko XII. ORP Biltzarra	ORP ARAGOIKO GOBERNUA	maiatzak 21, 22 eta 23	Zaragoza	Osalanen zuzendari nagusiak, Arloko arduradunak eta Arabako Lurralde Zentrok 2 teknikarik parte hartu zuten Ponentziak: "EAEn arrisku psikosozialen prebentzioa sustatzen du Osalane". "Osalanen Proiektu berriak". "Tenperatura txikietan lan egitea". "Laneko arriskuak industria-hondakinen kudeaketaren sektorean"
Bihotz-biriketako bizkortzea prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzat	OSALAN	maiatzak 21	Donostia	Osalanen Gipuzkoako Lurralde Zentrok mediku batek aurkeztu zuen tailerra
"Arrisku psikosozialak: Pertzepzioa eta konpromisoa" ikastaroa	MONDRAGON UNIBERTSITATEA	maiatzak 28	Arrasate	Amaiera zuzendari nagusiak
Arrantza-sektoreko osasun-zaintzarako gidaliburuaren 3. zatia aurkezpena, Kantaurialdeko administrazioek batera egina	KANTAUARIAR ERLAITZA	maiatzak 28	Bilbo	Aurkezpena zuzendari nagusiak
Makineria egokitzea, lan-ekipoetako segurtasunari buruzko jardunaldia	SEA eta MUTUALIA	maiatzak 30	Gasteiz	Zuzendari nagusiak eman dio hasiera, eta erakundearen laneko arriskuen prebentzioko teknikari batek ponentzia aurkeztu du

## 03 ERANSKINA

OSALANEK ZER  
EKITALDITAN PARTE  
HARTU DUEN 2014EAN

EKITALDIA	ANTOLATZAILEA	DATA	TOKIA	OSALANEN PARTE-HARTZEA
Lan-arriskuen prebentzioari buruzko Legearen gaineko solasaldia.	EMAUS	maiatzak 30	Donostia	Gipuzkoako Lurralde Zentroko teknikari batek emandako hitzaldia
Laneko Medikuntza eta Segurtasunerako Elkarre Espainiarraren XV. biltzarra. Sinposioa: Prebentzio Zerbitzuetako osasun-langileen prestakuntza jarraiturako plana.	LANEKO MEDIKUNTZA ETA SEGURTASUNERAKO ELKARTE ESPAINIARRA	Ekainak 5, 6 eta 7	Sevilla	Zuzendari nagusiak eman zuen hasiera, eta Laneko Osasunaren Unitateko arduradun batek eta mediku batek ponentziak aurkeztu zituzten
PRAISE Nazioarteko Mintegia: Bide Segurtasuna Lan Ingurunean	PRAISE	ekainak 12	Bilbo	Zuzendari nagusiaren ponentzia
Enpresa jardueren koordinazioa	SP MUTUALIA	ekainak 19	Donostia	Gipuzkoako Industria eta Zerbitzuen Arloko arduradunaren ponentzia
Enpresa-jardueren koordinazioa	SP MUTUALIA	ekainak 20	Bilbo	Bizkaiko Zerbitzuen Arloko arduradunaren ponentzia
Topagunea 2014 Estrategia	ENPRESA ESTRATEGIA	uztailak 18	Bilbo	Zuzendari nagusiaren bertaratzea
EU Safer Meeting	SAFERA eta OSALAN	irailak 16 eta 17	Bilbo	Zuzendari nagusiak; Administrazio, Antolaketa eta Giza Baliabideetako zuzendariordeak eta Bizkaiko Lurralde Zentroko teknikari batek parte hartu zuten
Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 5. Topaketa Nazionala	IAPRL	irailak 24-25-26	Gijón	Zuzendaritza Batzordearen (zuzendari nagusia eta zuzendariordeak) bertaratzea
Laneko arriskuen prebentzioko teknikarientzako II. ikastaroa arrantza-ontzietan jarduteko	ISSGA	urriak 1-2	Vigo	Amaiera zuzendari nagusiak
Gobernuaren eta Legebiltzarraren arteko harremanak aztertzeke lehen jardunaldia: Legebiltzar-kontrola, gardentasuna eta pribatutasuna	IVAP	urriak 13-14	Bilbo	Zuzendari nagusiaren eta Administrazio, Antolaketa eta Giza Baliabideetako zuzendariordearen bertaratzea
Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko IV. Biltzarra Madrilgo Erkidegoa	MADRILGO ERKIDEGOA	urriak 27-28	Madril	Zuzendari nagusiaren bertaratzea

# 03 ERANSKINA

OSALANEK ZER  
EKITALDITAN PARTE  
HARTU DUEN 2014EAN

EKITALDIA	ANTOLATZAILEA	DATA	TOKIA	OSALANEN PARTE-HARTZEA
Zuzendarian III. Biltzar Nazionala: "Berriz industrializatzea irabazteko"	APD	urriak 30	Bilbo	Administrazio, Antolaketa eta Giza Baliabideetako zuzendariordeak parte hartu zuen
CADP-CRUE jardunaldia	EHU	urriak 30-31	Bilbo	Zuzendari nagusiaren ponentzia
Jardunaldia-Kontsulta: "I+G+Brako finantzaketa lortzeko aukerak Europar eta Estatuan"	APD	azaroak 7	Bilbo	Zuzendari nagusiaren eta Administrazio, Antolaketa eta Giza Baliabideetako zuzendariordearen bertaratzea
Lan Harremanen Eskolaren 25. urteurrena	EHU	azaroak 11	Leioa	Zuzendari nagusiaren parte-hartzea
Kudeaketa Aurreratuaren Europako XX. Astea; "Jakintzaren Kudeaketa: Esperientzia berritzaileak" jardunaldia	EUSKALIT	azaroak 14	Bilbo	Zuzendari nagusiaren eta Administrazio, Antolaketa eta Giza Baliabideetako zuzendariordearen bertaratzea
Laneko Osasunari buruzko jardunaldia	GKN	azaroak 28	Zumaia	Gipuzkoako Laneko Osasunaren arduradunak emandako hitzaldia: "Zarata, ondorioak eta osasunaren zaintza"
Jardunaldia: lana eta osasuna 55 urtetik aurrera	ACMB	azaroak 30	Bilbo	Gipuzkoako Laneko Osasunaren arduradunak emandako hitzaldia
Arrisku psikosozialen prebentzioa lan-munduan	OSARTEN	Abenduak 3	Arrasate	Laneko psikosozilogiaz arduratzen den Osalaneke lantaldearen ponentzia
Administrazio Publikoetan Kongresuan Laneko Osasunari buruzko IV. jardunaldia	SESLAP	Abenduak 4-5	Bartzelona	Zuzendari nagusiak, Plangintzako zuzendariordeak, Laneko Osasunaren Unitatearen arduradunak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako LOUen arduradunek ponentziak aurkeztu zituzten
"Laneko tokiak" jardunaldi teknikoa	UGT	Abenduak 15	Bilbo	Zuzendari nagusiak eman dio hasiera, eta Bizkaiko Lurralde Zentroko teknikari batek ponentzia aurkeztu du
Euskal Herriko Berrikuntzaren Gidaliburuaren aurkezpena	INNOBASQUE BERRIKUNTZAREN EUSKAL AGENTZIA	Abenduak 16	Bilbo	Zuzendari nagusiaren bertaratzea
Jardunaldia: "Nanosegurtasunaren erronkak; laneko arriskuen prebentziorako kudeaketa-erremintak euskal enpresetan"	IGEP TECNALIA	Abenduak 17	Zamudio	Hasiera zuzendari nagusiak

